


Gizarte berrikuntza neurtzeko  
herrialde-indizea

RESINDEX eredua  
RESINDEX Euskadi 2013





## **RESINDEX**

Regional Social Innovation Index

Gizarte berrikuntza neurtzeko herrialde-indizea

Argitaratzailea: Innobasque - 2013

Berrikuntzako Euskal Agentzia

Bizkaiko Teknologia Parkea

Laida Bidea 203, 48170 Zamudio

Lege-gordailua: BI-948-2013



Liburu honetako edukiak, argitalpen honetan, honako baimen honekin eginak daude:

Aitortza–Ez komertziala–Obra eratorri gabeekin 3.0 España de Creative Commons  
(argibide gehiago [http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es\\_CO](http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_CO))

RESINDEX ereduaren jabetza intelektual

**SINNERGIAK Social Innovation (UPV/EHU)** zentroari dagokio

## **Aurkezpena**

Gurearen moduko gizarte dinamikoan ohikoa da termino berriak bizkor sortzeko beharra. Termino horiek erreferente bihurtzen dira eta gure hiztegian pixkanaka ezartzen dira; asko erabiltzen dira, baina ez beti gehiegizko zehaztasunarekin. Hain zuzen ere, "berrikuntza soziala" da seguru asko gizartean aurkeztu beharrik ez dagoen termino horietako bat, baina oso litekeena da kontzeptu horrek nolabaiteko azalpena eskatzea.

"Berrikuntza soziala"ri buruzko definizio ugarietz harago joanda, nahikoa da gizarteko arazo eta erronka konplexuetarako irtenbide berritzaileak bilatzearekin lotutako kontzeptua dela esatea. Askotan, irtenbide horiek komunikazioko eta lankidetzako modu berriak ekartzen dituzte. Hori dela eta, berrikuntza soziala erabiltzeak antolaketako zein diziplinako mugak, banakakoak edo kolektiboak, publikoak edo pribatuak, gainditzea eskatzen du. Horrez gain, aldez aurretik loturarik ez zuten taldeen eta banakoen arteko harreman berriak eta erakargarriak sortu eta kohesio soziala sendotzea ahalbidetu ohi da.

Berrikuntza sozialak tokiko izaera argia du. Berrikuntza sozialak beti daude toki mailan txertatuta, eta ongizate eta kultura espezifikoan eta bertakoan errotuta daude. Tokiko dimentsio hori, ordea, ez dago eskalagarritasunari eta transferentziari kontrajarrita. Gaur egungo arazo sozial gehienak mundu mailakoak dira; horrenbestez, mundu mailako irtenbideak eskatzen dituzte. Horregatik, berrikuntza sozialak tokiko irtenbideak mundu mailako testuinguruetara egokitzea ahalbidetzen du.

Berrikuntza sozialaren helburua, batez ere, erantzunik ez duten eskaera sozialei erantzuna ematea da. Horregatik, ekintzak garatzera zein emaitzak lortzera zuzendu behar da. Berrikuntza soziala kohesio soziala bermatzeko funtsezko gakoa dela esan dezakegu beraz. Hura gabe ezinezkoak lirateke eskualdeen lehiakortasuna eta bizitza iraunkorra.

Kontzeptu mailako ikuspegi horretatik abiatuta, "berrikuntza sozialak" hainbat maila lantzen du eta hori dela eta, konplexua dela esan dezakegu. Oraindik ere sendotutako eta partekatutako ikuspegiak ez duela esan dezakegu. Hori dela eta, adierazleak eraikitzea da argitzeko eta sendotzeko egin beharreko lan horretan bide emankorra. Gaur egun, gizartearekin eta ingurumenarekin lotutako gaiak gai ekonomikoen maila berean jarriko dituzten neurketarako metodo integralagoak behar dira.

Adierazleen sistema eraikitzeko garaian, ez dugu soilik kontzeptua mugatu nahi; ezagutzeko errazago bihurtu nahi dugu, adierazlerik izan ezean, kontzeptua sendotzea zaila baita. Gainera, adierazleek kontzeptuak eraikitzeko, ezagutzeko eta finkatzeko balio dute, baina neurtzeko eta, horrenbestez, ebaluatzeko tresnak ere badira.

RESINDEX (Regional Social Innovation Index) ikerkuntza pilotua da, INNOBASQUEk (Berrikuntzaren Euskal agentzia) abian jarritako Euskadiko berrikuntza ebaluatzeko ekimenaren baitan dagoena. Agentziarekin elkarlanean, SINNERGIAK Social Innovation (EHU) zentroak zuzendu eta garatu du ikerkuntza. Proiektu horren helburua

berrikuntza sozialaren eskualde mailako indizea garatuko duen eredia (dimentsioak eta adierazleak) prestatzea da.

Euskal Autonomia Erkidegoko egungo testuinguruan RESINDEX eredia modu pilotuan aplikatzearen ondorioz sortu dugun dokumentua da RESINDEX Euskadi 2013.

Lehenengo txosten hau egiteko, batzorde bat izan dugu lanean eta huraxe izan da garapena alderatu duena. Hamalau erakunde hauek osatu dute batzordea: Euskal Herriko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, REAS Euskadi, Bioef, Deloitte, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eudel, Novia Salcedo Fundazioa, Kutxabank, Ingema, Etorbizi, eta Lehendakari Agirre Center.

Proiektu pilotu hau berrikuntza sozialeko adierazleak identifikatzeko lan honen "arakatze-lana" dela esan dezakegu. Eskaintzen duen aukera egindako ekarpena izango da. Izan ere, ezaugarri horiek bilduko dituen lehen indizea da eta akatsak eta onurak aztertzeke aukera eskaintzen digu. Edonola ere, "berrikuntza soziala" gaiaren inguruan ezagutza sakonagoa egituratzen lagunduko digu zalantzarik gabe eta horrek gai horren inguruko erreferente gisa proiektatuko du Euskadi.

Proiektu pilotu honek metodo zorrotzen bidez lortu eta prestatutako berrikuntza sozialaren indize-eredua eztabaidagai bihurtuko du. Horrez gain, berrikuntza sozialeko adierazleak garatzea oraingoz lan esperimentala dela ulertzen du. Horren arabera, beharrezkoa da honako hauek egokitzea: ikuspegiak eta kontzeptuak, seriean egindako neurketak (urterokoak edo bi urtez behin egiten direnak), beste eskualde batzuekin alderatuta egindako ikerketak, eta kasuen araberako ikerketak. RESINDEX Euskadi 2013k egoeraren inguruko diagnostikoa eta irudi finkoa eskaintzen du. Beharrezkoa izango da etorkizunean ikerketak egitea RESINDEX ereduaren bilakaeraren garapena ezagutzeko eta noranzkoa egokia den edo hura zuzendu ahal izateko biratu behar dugun zehazteko.

**Txema Villate**

*Innobasqueko zuzendari nagusia*

**Alfonso Unceta**

*Sinergiak Social Innovationeko zuzendaria*

## Edukien Taula

<b>Aurkezpena</b>	2
<b>1. ATALA Regional Social Innovation Index (RESINDEX)</b>	
<b>Zergatik RESINDEX?</b>	8
<b>1. zatia: Sarrera: Berrikuntza sozialeko eskualde mailako indizerantz</b>	10
1.1 Berrikuntza soziala neurtzea	11
1.2 RESINDEX: proiektu pilotua	11
<b>2. zatia: Berrikuntza soziala: RESINDEX eredia</b>	14
2.1 Ikuspegia: xurgatze eta berrikuntza sozialerako gaitasuna	15
2.2 RESINDEX indizearen egitura	16
2.3 RESINDEXen definizioak	17
2.4 RESINDEXen kalkulu-eredua	22
2.5 Indizeak: kontzeptua, erabilgarritasunak eta muga	23
<b>2. ATALA RESINDEX Euskadi 2013</b>	
<b>Laburpen betearazlea</b>	29
<b>1. zatia: RESINDEX: Eskualde mailako ikuspegi sistemikoa</b>	34
1.1 Eskualde mailako ikuspegi sistemikoa	35
1.2 Berrikuntzako gaitasun potentziala	37
1.3 Arlo sozialera zuzendutako orientazioa	38
1.4 Berrikuntza soziala	40
<b>2. zatia: Enpresetako berrikuntza soziala</b>	44
2.1 Berrikuntzako gaitasun potentziala	45
2.2 Arlo sozialera zuzendutako orientazioa	45
2.3 Berrikuntza soziala	46
2.4 Ikuspegi integratua	47
<b>3. zatia: Berrikuntza soziala irabazi-asmorik gabeko erakundeetan</b>	50
3.1 Berrikuntzako gaitasun potentziala	51
3.2 Arlo sozialera zuzendutako orientazioa	51
3.3 Berrikuntza soziala	52
3.4 Ikuspegi integratua	53

<b>4. zatia: Berrikuntza soziala unibertsitateetan</b>	56
4.1 Berrikuntzako gaitasun potentziala	57
4.2 Arlo sozialera zuzendutako orientazioa	57
4.3 Berrikuntza soziala	58
4.4 Ikuspegi integratua	59
<b>5. zatia: Berrikuntza soziala teknologia-zentroetan</b>	62
5.1 Berrikuntzako gaitasun potentziala	63
5.2 Arlo sozialera zuzendutako orientazioa	63
5.3 Berrikuntza soziala	64
5.4 Ikuspegi integratua	65
<b>6. zatia: RESINDEX: Aurkikuntzak eta orientazioak</b>	68
6.1 Aurkikuntzak	69
6.2 Orientazioak	70
<b>7. zatia: RESINDEX: Etorkizuneko gakoak</b>	72
7.1 Proiektu pilotuaren mugak	73
7.2 Hurrengo urratsak	73
<b>ERANSKINA: Administrazio publikoa: Berrikuntza sozialaren bultzatzailea</b>	74
E.1 Sektore publikoko berrikuntzaren neurketari buruzko hausnarketak	75
E.2 RESINDEX eta berrikuntza soziala sektore publikoan	75
E.3 Administrazio publikoa: ideia berrien iturria	76
E.4 Administrazio publikoa: lankidetzako bazkidea	77
E.5 Administrazio publikoa: finantzaketa-iturria	79
E.6 Administrazio publikoa eta eragileak: Ikuspegi integratua	81
<b>Taulen aurkibidea</b>	82
<b>Grafikoen aurkibidea</b>	83
<b>Bibliografia</b>	84





# **1. ATALA**

**Regional Social Innovation Index  
(RESINDEX)**

## Zergatik RESINDEX

1. Europako testuinguruan, berrikuntza soziala gaur egun oinarrizko faktorea **delako** kohesio soziala, lehiakortasuna eta gure gizartearen iraunkortasuna lortzeko. Gizarte kohesionatuagoak, zalantzarik gabe, gizarte lehiakor eta iraunkorrako dira.
2. Berrikuntza sozialak krisi-garaiotan bereziki konplexuak diren arazo sozialetarako irtenbide berriak eskaintzen **dituelako**. Tokiko irtenbideak behar dituzten mundu mailako arazoak. Beste testuinguru batzuetara transferi daitezkeen eta, horrenbestez, beste gizarte batzuetara eraman daitezkeen tokiko irtenbideak ("innovation by adoption"). Berrikuntza Sozialerako Europako Gidan irakur dezakegun moduan: "perhaps at no time since the 1940s has social innovation been so urgently needed" (agian, 40ko hamarkadatik, berrikuntza soziala ez zen sekula izango horren premiazkoa).
3. Berrikuntza sozialak eragile ugari elkartzen **duelako** irtenbideak bilatzeko prozesuan. Berrikuntza soziala pertsonen eta erakundearen lankidetzaren bidez garatzen da. Hori dela eta, sektoreen arteko lankidetzaren eta hibridazioaren bultzatzen dituela esan dezakegu.
4. Berrikuntza sozialak emaitzak sortzen **dituelako** (produktuak, prozesuak, zerbitzuak). Emaitza horiek balioa ematen dute eta beharrezkoa da haiek ikusgai jartzea gizartearen haien garrantziaz jabe dadin. Beste nolabait esanda, neurtu beharreko emaitzak dira.
5. RESINDEX (Regional Social Innovation Index) eskualde mailako berrikuntza soziala neurtzeko eredu **delako**; berezko ereduak sortzen eta garatzen du, eta esparru horren inguruan Europa mailako esperientzia pilotua da.
6. RESINDEXek berrikuntza sozialeko proiektuak garatzeko erakundeek dituzten gaitasunak neurtzen **dituelako**. Gainera, proiektu horietan erakunde mota orok parte har dezakeela uste du (enpresak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, unibertsitatea eta teknologia-zentroak). Berrikuntza sozialak lantzen dituen arazoen kausa ugari izan ditzakete, eta horregatik gertatzen da hori. Horrenbestez, konponbidea bilatzeko, eragile heterogeneoak eskatzen ditu.
7. RESINDEX Euskadi 2013 Euskal Autonomia Erkidegoko egungo testuinguruan RESINDEX ereduaren aplikazio pilotua **delako** eta, gutxienez, hiru emaitza esanguratsu erakusten dituelako:
  - Euskadiko erakundeek berrikuntza soziala garatzeko gaitasun handiak dituzte.
  - Erakunde asko bideratzen da arlo sozialarekiko konpromisoa jasotzen duten jardueretara.
  - Gaitasunak hobeto bideratzeak berrikuntza sozialeko maila hobek eta handiagoak bultzatuko ditu.

8. RESINDEX Euskadi 2013k erakusten duenaren arabera, Euskadiko erakundeek gaitasunak berrikuntza sozialera bideratu behar **dituztelako**. Batez ere, hiru alderdi hauetan bideratu behar dituzte:
  - Eragile ugariaren arteko lankidetzeta-gaitasuna (erakunde mailako gobernantza).
  - Gobernantza sozialaren arloan, proiektuen garapenean herritarrek parte hartuta.
  - Berrikuntza sozialeko estrategietan iraunkortasuneko baldintzak sortuta (governantza iraunkorra).
  
9. Gaitasun horiek bideratzeak esku hartzeko tartea uzten **dietelako** politika publikoei. Europan Euskadi erreferente bihurtu daitezkeen berrikuntza sozialeko espezializazio-esparruak gure indarguneetan oinarritu beharko lirateke. Era berean, kapital sozial oparoa, gaitasun teknologikoak eta enpresa arloko tradizioa aprobetxatu behar dira.
  
10. RESINDEX ereduaren beste eskualde batzuetara egokitu eta han aplikatu **daitekeelako** adierazleen sistema egonkortu eta RESINDEX Euskadi 2013 ekimenaren bidez lortutako emaitzei balioa ematea ahalbidetuko luketen emaitza alderagarriak lortzeko

## **1. zatia: Sarrera. Berrikuntza sozialeko indizerantz**

## 1.1 Berrikuntza soziala neurtzea

Azken 10 urteotan, berrikuntza soziala kontzeptuak gero eta garrantzi handiagoa lortu du agenda akademikoan gizarte garaikideetan sortzen ari diren arazo sozial berriak aztertzeko ikuspegi berriua eskaintzen duen ideia gisa (Howaldt eta Schwarz, 2010; Murray et al., 2010). Hala eta guztiz ere, berrikuntza sozialaren eta haren tresnen garapenarekin lotutako oso eskaera bizkorra ikus dezakegu Europako politika publikoen agendan. Gainera, egun bizi dugun ekonomia eta finantza arloko krisiaren garrantzia dela eta, eskaera hori are gehiago bizkortu da (European Commission, 2010, 2011; European Union, 2012; Pol eta Ville, 2009). Langabeziarekin, biztanleria zahartzearekin, mundu mailako klima-aldaketarekin eta migrazio-presioarekin lotutako arazo larriak direla eta (besteak beste), herritarren, gobernuaren eta merkatuaren arteko tentsioak sortu dira. Eraldaketa sozial handien bezperan gaudela eta krisi honen harira sortu diren arazo sozialen konplexutasuna konpondu ahal izateko berrikuntza bideratzea beharrezkoa izango dela esan dezake horrek guztiak.

lido horretatik, berrikuntza sozialeko jarduerak eta haien eragina neurtzea funtsezkoa da eskualdeko eta erakunde mailako berrikuntza soziala bultzatzeko (European Commission, 2011, 2012; Oeij et al., 2010). Baina berrikuntza sozialeko adierazleak prestatzea lan konplexua da hainbat arrazoï dela eta. Lehenengo eta behin, ez dagoelako kausa mailako erlazioak balioestea ahalbidetuko luketen aldagaiak eta adierazleak eratoritzeko balio dezaketen ikuspegi teknikorik eta berrikuntza sozialaren azalpen-eredurik. Bigarrenik, lehen aipatu dugun arrazoia dela eta, ez dugu berrikuntza sozialari buruzko serie estatistikorik eta, horrenbestez, adierazle irmo eta fidagarriak ere ez. Hirugarrenik, serie estatistikorik ez dugunez, eskualde ugariaren arteko ikerketa alderatuak izan beharko genituzke eskuragarri, horrek adierazleak egonkortzea ahalbidetuko bailuke, baina, zoritxarrez, azterketa mota horiek ere ez daude eginda. Horrenbestez, berrikuntza sozialeko adierazleak garatzea oraingoz lan esperimental da. Beharrezkoa da honako hauek egokitzea: ikuspegiak eta kontzeptuak, seriean egindako neurketak (urterokoak edo bi urtez behin egiten direnak), beste eskualde batzuekin alderatuta egindako ikerketak, eta kasuen arabera ikerketak berrikuntza sozialeko eskualde mailako adierazleen sistema sendotzeko.

## 1.2 RESINDEX: proiektu pilotua

Dokumentu hau RESINDEX proiektu pilotuaren lehen txostena da. Horren helburu nagusia berrikuntza sozialeko adierazleak aztertuko dituen eredia garatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguruan test bidez aztertzea da. Beste nolabait esanda, berrikuntza sozialari buruzko eskualdeko barometroa ezartzeko proiektu pilotua izango da.

Helburu hori lortzeko erabilitako metodologia honako urrats hauetan oinarrituta dago:

- Berrikuntza sozialeko eredia, dimentsioak eta adierazleak zehaztea.
- Berrikuntza Sozialeko Eskualde mailako Indize-eredua (RESINDEX) prestatzea.

- Berrikuntza sozialeko RESINDEX galdetegia prestatzea.
- Eskualde mailako erakunde mota ugarietan aplikatzea inkesta: enpresak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, unibertsitateak eta teknologia-zentroak.
- Modu enpirikoan balioztatzea berrikuntza sozialeko eskualdeko indizea.
- Emaitzak zabaltzea.

RESINDEX proiektuan lortutako emaitzak hiru produktu nagusi hauetan laburbil ditzakegu:

- Berrikuntza sozialeko adierazleen eredu eta sistema balioztatua.
- Berrikuntza Sozialeko Eskualde mailako Indizea jasotzen duen txostena.
- Administrazio publikoak betetzen duen rolaren inguruko ikuspegi orokorra.



**2. zatia: Berrikuntza soziala:  
RESINDEX eredia**



## 2.1 Ikuspegia: xurgatze eta berrikuntza sozialerako gaitasuna

Modu esperimentalean, RESINDEX ereduak ezagutza xurgatzeko gaitasunarekin lotutako ideia eta berrikuntza soziala lotzen ditu modu kontzeptualean (1. grafikoa)<sup>1</sup> Apustu horren xedea honako ikuspegi-aldaketa hauen baitan antolaketa mailako gaitasunak eta berrikuntza soziala arakatzea da: alde batetik, "berrikuntza korporatiboak berrikuntza sozialetara bideratuta" (Hellström, 2004; Kanter, 1999; McElroy, 2002) eta, bestetik, "ekintzaile sozialak berrikuntza sozialak bultzatutako erakundeetarantz" (Phills et al., 2008).

### 2.1.1 Ezagutza xurgatzeko gaitasuna

Ezagutza xurgatzeko gaitasuna kontzeptu erlazionala da eta erakundeek kanpoko ezagutza identifikatzeko, bereganatzeko, eraldatzeko eta ustiatzeko duten gaitasuna zehazten du pilatutako barneko ezagutza oinarritzat hartuta (Cohen eta Levinthal, 1990). Egile batzuek iradokitakoaren arabera, erakundeek duten xurgatzeko gaitasuna modu enpirikoan aztertu ahal izateko beharrezkoa da bi gaitasun mota bereiztea: alde batetik, xurgatzeko gaitasun potentziala, eta bestetik gauzatutako xurgatze-gaitasuna (Zahra eta George, 2002: 189-192).

- **Xurgatzeko gaitasun potentziala.** Xurgatzeko gaitasun potentziala ezagutza eskuratzeko eta bereganatzeko gaitasunek osatzen dute. Lehenengoak kanpoko ezagutza identifikatzeko eta interpretatzeko gaitasunak biltzen ditu. Bigarren kasuan, aldiz, kanpoko iturrietatik lortutako ezagutza aztertzeke, prozesatzeko eta ulertzeke barneko gaitasunak dira.
- **Gauzatutako xurgatze-gaitasuna.** Ezagutza eskuratzeko eta bereganatzeko gaitasunak ez du bermatzen emaitzetan zehaztuko denik. Izan ere, horretarako, beharrezkoa da ezagutzaren eraldaketa- eta ustiapen-prozesuak gertatzea. Lehenengo kasuan, ezagutza berriaren (eskuratutakoa) eta lehendik dagoen ezagutzaren (metatua) arteko birkonbinazioko jarduerak dira eta berrikuntzako helburuak uztartzen ditu (produktu eta prozesu berriak sortzea). Bigarren kasuan, berriz, honako hauek bateratzen ditu: esku-hartze soziala, berrikuntzaren hedapen soziala (merkatu jakin batean kokatzea), eta ohitura eta antolaketako prozesu bihurtutako ezagutza modu eragingarrian txertatzea balioa sortzeko asmoz (balio hori ekonomikoa izan daiteke, baina baita soziala ere).

### 2.1.2 Berrikuntza soziala

Modu eraginkorrean, indize hori eraikitzeke honela definitu digu berrikuntza soziala: "Hezkuntza, osasun, enplegu, kultura, ingurumen eta/edo zerbitzu sozialen arloetan erantzun gabe dauden eskaera sozial gisa egituratutako arazo sozialak konpontzeko egun eskuragarri daudenak baino hobekak diren aukerak eskaintzen dituzten produktu, prozesu, metodo eta/edo zerbitzu hobekak edo berriak garatzeko ideien aplikazio praktikoa"<sup>2</sup>.

Ezagutza xurgatzeko gaitasunaren ideiarekin helburua erakunde batek arazo sozial bat identifikatzeko, bereganatzeko (ezagutzaren barneko ereduaren arabera),

<sup>1</sup> Ezagutza xurgatzeko gaitasunaren eta berrikuntza sozialaren arteko loturari buruzko aurkezpen zabala kontsulta daiteke dokumentu honetan: "Indicadores de Innovación Social: Conceptualización y modelo exploratorio", Unceta eta Castro Spila, (2012).

<sup>2</sup> RESINDEX ereduak garatzeko erabilitako berrikuntza sozialaren inguruko ikuspegi eta definizio ugariei buruzko eztabaida egiteke, dokumentu hau kontsulta daiteke: "Indicadores de Innovación Social: Conceptualización y modelo exploratorio", Unceta eta Castro Spila, (2012).

irtenbideak aztertzeo (produktuak, prototipoak, zerbitzuak, metodoak) eta horiek ezartzeko (berrikuntzaren eta haren eraginaren hedapena eta ebaluazioa) erabiltzen duen prozesua ulertzea (kausak, eraginak eta abar) da. Horrenbestez, erakundeek berrikuntza sozialak garatzeko duten modua aztertzeak beti iradokitzen du arlo soziala oinarri duen ezagutza xurgatzeko gaitasun maila, eta arazo horiei erantzuteko bideragarria den aukerarekin arlo sozialean eragina izateko gaitasuna.

### 2.1.3 Premisak

Modu esperimentalean, RESINDEX ereduak hiru premisa nagusitan oinarritutako berrikuntza sozialaren ikuspegi sistemikoa biltzen du:

- a) Berrikuntza sozialak erakunde heterogeneo ugariaren bidez sortu eta hedatu daitezke. Hori dela eta, ez dago agentzien aniztasunik gabe berrikuntza sozialak garatzeko gai den erakunde pribilegiatuen eredu finko bat (enpresa soziala).
- b) Berrikuntza sozialek kokatutako eta lokalizatutako izaera dute. Berrikuntza sozialeko prozesuek zati tazitu eta endogeno handia dute konpondu nahi dituzten arazo eta eskaera sozialekin lotura irmoa dutelako. Ikuspegi horrek ematen du berrikuntza sozialaren eskualde mailako perspektiba hain zuzen ere.
- c) Berrikuntza sozialak erakundeek arlo sozialaren inguruko ezagutzak xurgatzeko duten gaitasunari lotuta daude. Erakundeek bultzatutako berrikuntza sozialak prozesu epistemikoaren ondorio dira. Horren arabera, arazo eta behar sozialen inguruko ezagutza interpretatu, bereganatu, birmoldatu eta ustiatu, eta irtenbide iraunkorrak egituratu beharra dago.

## 2.2 RESINDEX indizearen egitura

Premisa horiek oinarritzat hartuta, RESINDEX ereduak hiru indizetan egituratuta dago (1. grafikoak):

- a) Berrikuntzako gaitasun potentzialaren indizea: Berrikuntzako bost gaitasun neurtzen dituen unitate sintetikoa da indize hori: ezagutza, ikaskuntza, barneko sozializazioa, kanpoko lotura eta garapena.
- b) Arlo sozialera zuzendutako indizea: Indize hori proiektu sozialak ezartzeko lau faktore neurtzen dituen unitate sintetikoa da: ezagutza eskuratzea, proiektu sozialak garatzea, proiektu sozialen eragina eta proiektu sozialen gobernantza.
- c) Berrikuntza sozialeko indizea: Indize hori proiektu sozial berritzaileak (produktu, prozesu, metodo eta/edo zerbitzu berriak edo hobeak sortu dituzten proiektuak) ezartzeko lanean kontuan hartu ohi diren lau faktore neurtzen dituen unitate sintetikoa da: ezagutza eskuratzea, proiektu sozial berritzaileak garatzea, proiektu sozialen eragina eta proiektu sozial berritzaileen gobernantza.

1. grafikoa RESINDEX eredua: xurgatze eta berrikuntza sozialerako gaitasuna

<b>Gaitasun potentziala</b>	<b>Berrikuntzako gaitasun potentzialaren indizea</b>	Ezagutza- gaitasuna
		Ikaskuntza-gaitasuna
		Sozializazioko gaitasuna
		Garapeneko gaitasuna
		Lotzeko gaitasuna
<b>Gauzatutako gaitasuna</b>	<b>Arlo sozialera zuzendutako indizea</b>	Ezagutza eskuratzea
		Proiektu sozialen garapena
		Proiektu sozialen eragina
		Gobernantza
	<b>Berrikuntza sozialeko indizea</b>	Ezagutza eskuratzea
		Berrikuntza sozialeko proiektuen garapena
		Berrikuntza sozialeko proiektuen eragina
		Gobernantza

### 2.3 RESINDEXen definizioak

1. taulan dago zehaztuta RESINDEX eraikitzeke erabilitako dimentsio eta aldagaien inguruko interpretazio nagusia.

1. taula RESINDEX: dimentsioak, adierazleak eta interpretazioa

<b>Gaitasun potentziala</b>			
	<b>Dimentsioa</b>	<b>Adierazlea</b>	<b>Interpretazioa</b>
<b>Ezagutza-gaitasuna</b>	Erakundearen ezagutza sortzen duten ikerlarien stock-a	Ikerkuntza-jardueren arduratzen diren kontratupeko langileen proportzioa (% 30)	Erakundearen ezagutza sortzeko eta hedatzeko masa kritikoa (gutxienezkoa) identifikatzen du
<b>Ikaskuntza-gaitasuna</b>	Prestakuntza-jardueren garapena gaitasunen arabera	Prestakuntzaren lorpen maila erakundearen gaitasunen arabera	Erakundeko maila ugarien arabera, gaitasunen arabera prestakuntzaren eragina identifikatzen du
<b>Sozializazioko gaitasuna (barnekoa)</b>	Ideiak, informazioa eta ezagutza partekatzeke barneko mekanismorik baden	Erakundeko jardueretarako adierazgarriak diren ideiak, ezagutzak eta informazioa trukatzeko ohiko mekanismoen ezarpen maila	Erakundeko maila ugarietan ideiak, informazioa eta ezagutza sozializatzeko gaitasunaren eragin maila identifikatzen du
<b>Lotura-gaitasuna (kanpoko)</b>	Kanpoko eragileekin lotura izateko jardueren garapena (networking-a, lankidetzak eta aliantza estrategikoak)	Ezagutza eta informazioa partekatzeke kanpoko eragileekin duten loturaren intentsitatea	Erakundeetako kanpoko loturen intentsitate maila eta horien eskuragarritasuna identifikatzen du
<b>Garapeneko gaitasuna</b>	Idea berriak sortzetik eratorritako ideia, prototipo eta jarduerak berriak aplikatzea	Erakundeak aplikatutako proiektuen/prototipoen garapeneko intentsitate maila	Proiektu eta prototipoetarako ideia berriak aplikatzeko erakundeek duten gaitasuna identifikatzen du

<b>Gauzatutako gaitasuna</b>			
	<b>Definizioa</b>	<b>Adierazlea</b>	<b>Interpretazioa</b>
<b>Proiektu sozialetarako ezagutzara sarbidea (berritzaileak eta ez-berritzaileak)</b>	1.1. Arlo sozialaren monitorizazioa	Behar/eskaera sozialak identifikatzera bideratutako pertsonak edo unitateak izatea (edo ez izatea). (0 edo 1)	Beharrak islatzeko eta berrikuntza-aukerak identifikatzeko erakundeetan baliabideak bideratzen dituzten identifikatzen du
	1.2. Proiektu sozialak garatzeko ideia-iturrien aniztasuna	Proiektu sozialetarako ideia-iturrien aniztasun maila (% 0 eta % 100 artekoa)	Ideia-iturriekin lotutako aniztasunak ezagutza ezberdin batera sarbidea izateko gaitasun ezberdinak islatzen ditu
	1.3. Proiektu sozialak garatzeko lankidetzako bazkideen arloko aniztasuna	Proiektu sozialak garatzeko lankidetzako bazkideen arloko aniztasun maila (% 0 eta % 100 artekoa)	Lankidetzako bazkideen aniztasunak (enpresak, unibertsitateak, GKEak eta abar) lankidetzako gaitasunen ezagutza eta aniztasun mota ugaritara sarbidea adierazten du
<b>Proiektuen garapena (berritzaileak eta ez-berritzaileak)</b>	2.1. Proiektu sozialak garatzeko finantzaketa-iturrien aniztasuna (berezko funtsak, funts publikoak eta pribatuak)	Proiektu sozialak garatzeko finantzaketa-iturrien aniztasun maila (% 0 eta % 100 artekoa)	Finantzaketa-iturrien aniztasuna identifikatzen du Zenbat eta anitzagoak izan iturriak, orduan eta handiagoak dira proiektu sozialak garatzeko erakundeen gaitasunak

	2.2. Proiektu sozialen ebaluazio moten aniztasuna	Proiektu sozialak garatzeko ebaluazio moten aniztasun maila (% 0 eta % 100 artekoa)	Proiektu sozialak ebaluatzeko moduekin lotutako aniztasuna identifikatzen du. Zenbat eta anitzagoak izan ebaluazio-prozesuak, orduan eta handiagoak izango dira proiektu sozialak garatzeko gaitasunak
<b>Proiektu sozialen eragina (berritzaileak eta ez-berritzaileak)</b>	2.3. Proiektu sozialetako esku-hartze sozial moduen arloko aniztasuna (teknologikoak, kulturalak eta abar)	Proiektu sozialak garatzeko ebaluazioko esku-hartze moten aniztasun maila (% 0 eta % 100 artekoa)	Esku-hartze sozialeko moduen aniztasuna identifikatzen du. Zenbat eta anitzagoak izan esku hartzeko prozesuak, orduan eta handiagoak izango dira proiektu sozialak garatzeko gaitasunak
	3.1. Proiektu sozialen eragin sozialaren aniztasun maila (audientzia ezberdinak)	Proiektu sozialen emaitzen hedapen soziala egiteko garaian dagoen aniztasun maila (% 0 eta % 100 artekoa)	Hartzaile ugarien artean proiektu sozialen emaitzak hedatzearekin lotutako estaldura identifikatzen du
	3.2. Proiektu sozialen erakunde mailako eraginaren aniztasun maila	Erakunde baitako hobekuntzako aniztasun maila (% 0 eta % 100 artekoa) proiektu sozialen gauzatzearekin lotuta	Proiektu sozialak gauzatzetik eratorritako erakunde mailako hobekuntzak eta ikaskuntzak identifikatzen ditu

	3.3. Proiektu sozialen sektore arloko (osasuna, hezkuntza, ingurumena, zerbitzu sozialak) eraginaren aniztasun maila	Proiektu sozialen eragina jaso duten sektoreetako aniztasun maila (% 0 eta % 100 artekoa)	Proiektuek eragina izan duten sektoreen aniztasuna identifikatzen du
<b>Proiektu sozialen gobernantza (berritzaileak eta ez-berritzaileak)</b>	4.1. Gobernantza sozialaren maila (proiektu sozialetako helburu diren hartzaileen inplikazio mailak)	Proiektuaren xede den biztanleriaren partaidetza maila (% 0 eta % 100 artekoa)	Proiektuen garapenean xede den biztanleriak duen partaidetzaren intentsitatea identifikatzen du
	4.2. Erakunde mailako gobernantza maila (lankidetzako bazkideen aniztasuna proiektu sozialetan)	Proiektu sozialetako lankidetzako bazkide moten aniztasun maila (% 0 eta % 100 artekoa)	Bazkide mota ugariarekin akordioak adosteko gaitasunak adierazten dituen lankidetzako bazkideen aniztasuna identifikatzen du
	4.3. Proiektu sozialen iraunkortasun maila	Proiektuen iraunkortasun maila (% 0 eta % 100 artekoa)	Proiektuaz haratago, proiektu horiek ekintzari bizitza ematen dioten azpiegitura berriak sortu dituzten identifikatzen du

## 2.4 RESINDEXen kalkulu modua

2. taulan dago zehaztuta RESINDEX osatzen duten hiru indizeen kalkulu modua kontuan hartutako lau eragileen arabera; hau da<sup>3</sup>:

3 RESINDEXen kalkulu modua gehiago sakondu nahi izanez gero, dokumentu hau kontsulta daiteke: "RESINDEX: Estructura del índice de innovación social", García Fronti, Castro Spila, Unceta (2012).

2. taula. RESINDEXen kalkulu modua

	<b>Berrikuntzako gaitasun potentziala</b>	<b>Arlo sozialera zuzendutako orientazioa</b>	<b>Berrikuntza soziala</b>
Enpresak	$BGP^E = \frac{\sum_{i=1}^{n^E} BGP^i}{n^E}$	$SO^E = \frac{\sum_{i=1}^{n^E} SO^i}{n^E}$	$BS^E = \frac{\sum_{i=1}^{n^E} BS^i}{n^E}$
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	$BGP^O = \frac{\sum_{i=1}^{n^O} BGP^i}{n^O}$	$SO^O = \frac{\sum_{i=1}^{n^O} SO^i}{n^O}$	$BS^O = \frac{\sum_{i=1}^{n^O} BS^i}{n^O}$
Unibertsitateak	$BGP^U = \frac{\sum_{i=1}^{n^E+n^O+n^U} BGP^i}{n^U}$	$SO^U = \frac{\sum_{i=1}^{n^E+n^O+n^U} SO^i}{n^U}$	$BS^U = \frac{\sum_{i=1}^{n^E+n^O+n^U} BS^i}{n^U}$
Teknologia-zentroak	$BGP^C = \frac{\sum_{i=1}^{n^E+n^O+n^U+n^C} BGP^i}{n^C}$	$SO^C = \frac{\sum_{i=1}^{n^E+n^O+n^U+n^C} SO^i}{n^C}$	$BS^C = \frac{\sum_{i=1}^{n^E+n^O+n^U+n^C} BS^i}{n^C}$
<b>ESKUALDEKOA</b>	$BGP^R = \frac{\sum_{i=1}^n BGP^i}{n}$	$SO^R = \frac{SO}{n}$	$BS^R = \frac{\sum_{i=1}^n BS^i}{n}$

Iturria: "RESINDEX: Berrikuntza sozialeko eskualdeko indizearen egitura", SINNERGIAK (2012)

Non

n	Inkestatutako eragileen guztizko kopurua (inkestak honela daude ordenatuta: Enpresak - Irabazi-asmorik gabeko erakundeak - Unibertsitateak - Teknologia-zentroak)
n <sup>E</sup>	Enpresen guztizko kopurua
n <sup>O</sup>	Irabazi-asmorik gabeko erakundeen guztizko kopurua
n <sup>U</sup>	Unibertsitateen guztizko kopurua
n <sup>C</sup>	Teknologia-zentroen guztizko kopurua
i	Inkestatutako eragile bakoitza identifikatzen duen errotulua (1 eta n artekoa)
BGP <sup>i</sup>	Inkestatutako eragile baten (i) berrikuntzarako gaitasun potentziala
SO <sup>i</sup>	Inkestatutako eragile baten (i) arlo sozialerako orientazioa
BS <sup>i</sup>	Inkestatutako eragile baten (i) berrikuntza soziala



## 2.5 Indizeak: kontzeptua, erabilgarritasunak eta mugak

Atal honen helburua txostenaren ulermena erraztea da eta bereziki lantzen ditu indizeen ezaugarriak neurtzeko eta ebaluatzeko tresna gisa.

### 2.5.1 Kontzeptua

Zer da indize bat?

Indize bat fenomeno bereko kopuruen arteko lotura estatistikoa adierazten duen balio numerikoa da. Balio numeriko horixe da, hain zuzen ere, aztertu eta neurtu nahi dugun fenomeno horri buruzko ikuspegia eskaintzen diguna.

Nola prestatzen da indize bat?

Indize bat prestatzeko prozedura ugari dago. RESINDEXen kasuan, indizea prestatzeko aurrez zehaztutako galdetegi baten estatistikako kudeaketa erabiltzen da. Galdetegia diseinatzean, hura osatzen duten galderei puntuazioak ematen zaizkie; hori dela eta, erantzun motaren arabera, lortutako puntuazioa aldatu egiten da.

Zer inritzide erabiltzen da puntuazioak esleitzeko?

Galdetegia osatzen duten galderei eta erantzunei puntuazioak ematea, bistakoa denez, izaera metodologikoa duen erabakia da eta proposatutako ereduarekin lotura du. Indizea osatzen duten eragileak galdetegiko galdera ugari multzokatuta sortzen dira. Hori dela eta, adierazle bakoitzak garrantzi espezifikoa izaten du indizearen barruan.

RESINDEXen kasuan, honako aukera hauek nabarmendu behar dira:

- a) Berrikuntzako Gaitasun Potentzialaren indizean, neurtutako bost adierazleek (ezagutza-gaitasuna, ikaskuntzarako gaitasuna, sozializazioko gaitasuna, garapeneko gaitasuna eta lotura-gaitasuna) haztapen homogeneoa izan dute eta, indize barruan duten garrantzi erlatiboari dagokionez, haien artean ez da inolako alderik ezarri.
- b) Arlo sozialera zuzendutako orientazioaren indizean ere haztapen homogeneoa izan dute proiektu sozialak ezartzeko garaian kontuan hartu ditugun lau faktoreek (ezagutza eskuratzea, proiektu sozialen garapena, proiektu sozialen eragina eta gobernantza). Horren osagarri gisa, eta galderen arteko konbinazio ugari ezartzea ahalbidetzen duen estatistikako tratamenduaren bidez, kontroleko aldagaiak txertatu ohi dira proiektu bati arlo sozialera zuzendutako kontsiderazioa emateko.
- c) Arlo sozialaren indizean ere haztapen homogeneoa izan dute proiektu sozialak ezartzeko garaian kontuan hartu ditugun lau faktoreek (ezagutza eskuratzea, proiektu sozialen garapena, proiektu sozialen eragina eta gobernantza). Horren osagarri gisa, eta galderen arteko konbinazio ugari ezartzea ahalbidetzen duen estatistikako tratamenduaren bidez, kontroleko aldagaiak txertatu ohi dira proiektu bati arlo sozialean berritzailea izateko kontsiderazioa emateko.

Nola interpretatu behar da RESINDEX indizea?


- Puntuazioak 1etik 100era bitartean adierazita daude.
- Histogramatan eta taulatan dauden aurkeztuta.
- Sektore bakoitzari ematen zaion puntuazioa haren batez bestekoa da.
- Eskualde mailako puntuazioa eragile guztien arteko batez bestekoa da.

### 2.5.2 Erabilgarritasunak

- Indize bati esker, ebidentzia eta iritziak estatistikako balio bihur ditzakegu.
- Estatistikako balioak tarte ezberdinen arabera (0-10, 0-100, 0-1000) aurkez ditzakegu emaitzak errazago irakurri ahal izateko.
- Indize batek eragileen, sektoreen, eskualdeen eta abarren arteko alderaketa egitea errazten du.
- Indize batek neurketaren jarraipena eta erregularotasuna ahalbidetzen du. Horri esker, joerak, ahuleziak, indarguneak eta abarrak finka daitezke.
- Indize bati esker, esparru jakin bateko egoera ebalua daiteke.

### 2.5.3 Mugak

- Ezarpena. Modu berarekin lortu eta prestatu den eta beste lurralde-esparru batean probatu den indizerik izan ezean, ezingo da txosteneko emaitzen arteko balio alderaturik ezarri.
- Alderagarritasuna. RESINDEX indizea emankorra da sistema beraren barruan ahuleziak eta indarguneak identifikatzea ahalbidetzen duelako, baina baita eragile ugarien arteko alderaketa egitea ahalbidetzen duelako ere. Dena den, ikerketa pilotua denez, ezin daiteke eskualdeen arteko alderaketarik ezarri.





## **2. ATALA**

**RESINDEX Euskadi 2013**

Egungo arazo sozial larriei eta era askotakoei irtenbide berritzaileak eta iraunkorrak emateko premiarekin, eta adostutako teoriarik izan gabe, sektore publikoak (eskualdekoa eta Europakoa) berrikuntza sozialeko adierazleen sistema eskuragarri izateko egindako eskaera sendotu egin da. Sistema horrek berrikuntza soziala ulertzeaz gain, eskualdeen eta erakundeen baitan bultzatzea ahalbidetu beharko luke. Aurreko blokean aurkeztu dugun RESINDEX Regional Social Innovation Index ereduia da adierazle-sistema hori sortzeko lehen proposamena. Era berean, RESINDEX Euskadi 2013 izango da Euskal Autonomia Erkidego baitan RESINDEX ereduaren aplikazio pilotua 2013. urtean. Euskadiko berrikuntza sozialaren egoeraren inguruko irudia eskaintzen du eskualdeko ikuspegitik zein antolaketa mailakotik abiatuta.

Blokearen lehen zatia RESINDEXen emaitzak laburtzera zuzenduta dago. Indizearen eskualde mailako ikuspegi sistemikoa eskaintzen du emaitzak multzokatuta eta alderatuta aurkeztuta. Bigarren zatiak RESINDEX ereduaren aplikazioaren emaitza jasotzen du enprekin lotuta; hirugarrenak emaitza hori irabazi-asmorik gabeko erakundeetan oinarrituta jasotzen du; laugarrenak, aldiz, unibertsitateetan oinarrituta (ikerkuntza-taldeak); eta bosgarrenak teknologia-zentroak ditu azterketagai.

Txostenaren amaieran, 6. eta 7. zatiak topatuko ditugu. 6. zatiak RESINDEX Euskadi 2013tik ondorioztatutako aurkikuntzak eta orientazioak aurkeztuko ditugu eta 7. zatian proiektu pilotuaren mugak daude zehaztuta eta RESINDEX ereduia egonkortzen lagun dezaketen ikerkuntzako ildo osagarriak proposatzen dira.

Azkenik, administrazio publikoek berrikuntza sozialaren eragile bultzatzaile gisa duten rola aztertzea zuzendutako eranskina dago.

## Laburpen betearazlea

1. Arazo sozialak arintzea edo horietarako irtenbide iraunkorrak aztertzea xede duten jarduera berritzaileak neurtzea ahalbidetuko duten adierazleen sistema prestatzeko egindako hasierako esperientzia horren emaitza da txosten hau.
2. RESINDEX (Regional Social Innovation Index) ikerkuntza pilotua da, INNOBASQUEk (Berrikuntzaren Euskal agentzia) abian jarritako Euskadiko berrikuntza ebaluatzeko ekimenaren baitan dagoena. Agentziarekin elkarlanean, SINNERGIAK Social Innovation (EHU) zentroak zuzendu eta garatu du.
3. RESINDEX ereduak oinarrizko hiru premisa ditu:
  - a) Berrikuntza sozialak gizartean banatuta daude eta eskualde mailako erakunde ugari izan daitezke berrikuntza sozialeko eragileak.
  - b) Berrikuntza sozialek eskualde mailako izaera (eskualde mailako indizea baimentzen duena) dute, kokatuta dauden eta testuinguruaren arabera diren arazo sozialak konpontzea edo arintzea baitute xede.
  - c) Berrikuntza sozialak bultzatzen dituzten erakundeek ezagutza xurgatzeko gaitasuna dute; hau da, arazo sozial bat identifikatzeko (kausak, eraginak eta abar), bereganatzeko (ezagutzaren barneko ereduaren arabera), irtenbideak aztertzeko (produktuak, prototipoak, zerbitzuak, metodoak) eta horiek ezartzeko (aplikazioa, hedapena eta berrikuntzaren eta haren inpaktuaren ebaluazio) ahalmena.
4. RESINDEX eredu hiru indizetan egituratuta dago:
  - a) Berrikuntzako gaitasun potentzialaren indizea.
  - b) Erakundeetako arlo sozialera zuzendutako indizea (arazo sozialei arreta ematen zaienean, baina modu ez-berritzailean).
  - c) Berrikuntza sozialaren indizea (arazo sozialei modu berritzailean arreta ematen zaienean). Diseinu horrek berrikuntza sozialaren irizpide kartografikoa betetzen du. Hori kontuan hartuta, berrikuntza-baldintzen eta gaitasunen heterogeneotasunaren eta hori bultzatzeko politika eta tresna ugariaren bultzadaren arabera da
5. RESINDEX eredu probatzeko asmoz, berrikuntza sozialeko inkesta diseinatu eta Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde mailako 282 eragileri aplikatu zitzaion. Hau da: 100 enpresari, irabazi-asmorik gabeko 94 erakunderi, unibertsitateko 80 ikerketa-talderi eta 8 teknologia-zentrori. Lagin horren konfiantza maila % 95koa da, eta langiketa-errorea, gehienez, % +/- 5,44koa.
6. Tonuen arabera mailaketa-sistema erabili dute indize ugariengatik inguruko begirada azkarra egin ahal izateko. Hiru intentsitate mota adierazten dituzte kontuan hartutako emaitza horietako bakoitzerako. Hori dela eta, tonu argienak indize horrek 30 puntu baino gutxiagoko balioa duela esan nahi du (maila

baxua). Erdiko tonua, aldiz, 31 eta 70 puntu arteko balioei dagokie (erdiko maila). Tonu ilunenak 71 puntu baino gehiagoko balioak islatzen ditu (maila altua). Mailaketa-sistema hori erabiliko dugu txosten honetako hainbat ataletan.

7. Berrikuntzarako gaitasun potentzialaren indizeari dagokion emaitza orokorra ikus dezakegu hurrengo grafikoan:

**Berrikuntzako gaitasun potentzialaren indizea eragileen arabera**

	<b>Ezagutza-gaitasuna</b>	<b>Ikaskuntza-gaitasuna</b>	<b>Sozializazioko gaitasuna</b>	<b>Garapeneko gaitasuna</b>	<b>Lotzeko gaitasuna</b>
Enpresak	ERTAINA	HANDIA	HANDIA	ERTAINA	TXIKIA
Irabazi-asmorik gabeko erakundea	ERTAINA	HANDIA	HANDIA	HANDIA	ERTAINA
Unibertsitateak	HANDIA	HANDIA	HANDIA	ERTAINA	ERTAINA
Teknologia-zentroak	HANDIA	HANDIA	HANDIA	HANDIA	HANDIA
<b>ESKUALDEKOA</b>	<b>ERTAINA</b>	<b>HANDIA</b>	<b>HANDIA</b>	<b>ERTAINA</b>	<b>ERTAINA</b>

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

8. Arlo sozialera zuzendutako indizearen emaitzak ikus ditzakegu hurrengo grafikoa:

**Arlo sozialera zuzendutako orientazioa eragileen arabera**

	<b>Ezagutza eskuratzea</b>	<b>Proiektu sozialen garapena</b>	<b>Proiektu sozialen eragina</b>	<b>Gobernantza</b>
Enpresak	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA
Irabazi-asmorik gabeko erakundea	ERTAINA	ERTAINA	ERTAINA	TXIKIA
Unibertsitateak	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA
Teknologia-zentroak	HANDIA	ERTAINA	ERTAINA	ERTAINA
<b>ESKUALDEKOA</b>	<b>TXIKIA</b>	<b>TXIKIA</b>	<b>TXIKIA</b>	<b>TXIKIA</b>

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta



9. Berrikuntza sozialaren indizearen emaitzak ikus ditzakegu hurrengo grafikoan:

Berrikuntza sozialaren indizea eragileen arabera				
	Ezagutza eskuratzea	Berrikuntza sozialeko proiektuen garapena	Berrikuntza sozialeko proiektuen eragina	Gobernantza
Enpresak	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA
Unibertsitateak	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA
Teknologia-zentroak	ERTAINA	ERTAINA	ERTAINA	TXIKIA
<b>ESKUALDEKOA</b>	<b>TXIKIA</b>	<b>TXIKIA</b>	<b>TXIKIA</b>	<b>TXIKIA</b>

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

10. Azkenik, hiru indize horiek RESINDEXen txertatu ditugu eragileen araberako ikuspegi txertatua egin ahal izateko.


RESINDEX eragileen arabera			
	Berrikuntzako gaitasun potentziala	Arlo sozialera zuzendutako orientazioa	Berrikuntza soziala
Enpresak	ERTAINA	TXIKIA	TXIKIA
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	ERTAINA	ERTAINA	TXIKIA
Unibertsitateak	HANDIA	TXIKIA	TXIKIA
Teknologia-zentroak	HANDIA	ERTAINA	TXIKIA
<b>ESKUALDEKOA</b>	<b>ERTAINA</b>	<b>TXIKIA</b>	<b>TXIKIA</b>

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

11. Ikerketa pilotu honek berrikuntza sozialeko adierazleen eredia eta sistema prestatzea ahalbidetu digun arren, etorkizunera begira, beharrezkoa izango da RESINDEX egonkortu ahal izateko neurketa gehiago, kasuen ikerketa eta azterketa alderatuak egitea.

12. Txostenak "administrazio publikoa: berrikuntza sozialaren bultzatzailea" izeneko eranskina du. Eranskin hori gehitzeko hainbat arrazoi dago:

- Administrazio publikoa berrikuntza sozialean lehentasunezko eragilea da eta haren estrategia eta antolaketa mailako berezitasunak direla eta, gero eta maizago bihurtu ohi da azterketagai.
- Bistakoa da administrazio publikoak berrikuntza sozialaren inguruan lan egiten duten eragile ugarien arteko bitartekaritza-rola betetzen duela. Gainera, era berean, zerbitzu eta prozesu berriak aplikatzeko eta proiektuen, eragileen eta, oro har, herritarren artean elkarrekintza bultzatzeko esparrua da.
- RESINDEX ereduaren arabera, administrazio publikoaren berezitasunak direla eta, ezin da eragile soiltzat hartu ikerkuntzan barneratu ditugun beste lauren maila berean.
- RESINDEXen oinarri diren ebidentzien oinarritzko euskarri den galdetegiak administrazio publikoari buruzko galdera batzuk gehitu ditu. Behar bezala landuz gero, horiek aurretik aipatu dugun eranskinaren osagarri den informazioa biltzen dute.
- Zalantzarik gabe, lehen gerturatze-lana administrazio publikoak berrikuntza soziala bultzatzen eta garatzen betetzen duen rol hori ezagutzeko prozesuan egindako aurrerapen handia da. Beste nolabait esanda, gai hori modu zehatzagoan lantzeko abiapuntua da.



**1. zatia: RESINDEX: eskualde mailako  
ikuspegi sistemikoa**

## 1.1 Eskualde mailako ikuspegi sistemikoa

3. taulan daude aurkeztuta indize guztiek biltzen dituzten RESINDEXen emaitzak: berrikuntzako gaitasun potentziala, arlo sozialera zuzendutako orientazioa eta berrikuntza soziala.

RESINDEX hiru ikuspegi hauetatik abiatuta irakurri behar da:

- Ikuspegi numerikoak eragileek lortutako balioak erakusten ditu taula eta grafikoan bidez aztertutako adierazle eta indizeekin lotuta.
- Koloreen arabera mailaketako ikuspegiak balio horiek numerikoki adierazten dutena errazago interpretatzea ahalbidetzen du. Koloreen eskala hori behar bezala ulertu ahal izateko, honako hau kontuan izan behar da:
  - Gorriak balio baxuenak adierazten ditu.
  - Horiak tarteko balioak adierazten ditu.
  - Berdeak balio altuenak adierazten ditu.
 Horrenbestez, hiru koloretako baldintzazko eskala da. Tonalitateak aldatu egiten dira oinarritzko hiru koloreekiko (gorria, horia eta berdea) duten distantziaren edo gertutasunaren arabera.
- Tonuen arabera mailaketa-sistemak hiru intentsitate mota ditu (baxua, ertaina eta altua) aztertutako emaitza horietako bakoitzerako lehen aipatu dugun moduan.

Aztertutako hiru ikuspegiak taula eta grafikoetan adierazita daude. Emaitzak erakusten dituzte eta txosteneko atal honetan eta hurrengoetan maiz eta berdindin erabiliko ditugu.

RESINDEXen datuek erakusten dutenez, sistemak berrikuntzako gaitasun potentzial ertaina du, eta hobetzeko estrategiak bultzatzea daitezke. Baina berrikuntzako gaitasun potentzial hori ezberdina da eragile batetik bestera:

- Enpresak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira berrikuntzako gaitasun potentzialak hobetzeko euskarri handiagoa behar dutenak.
- Sistema osoan, arlo sozialera zuzendutako orientazioa txikia da. Eta, beste behin, eskualde mailako eragile moten arabera, aldeak daude.
- Enpresak eta unibertsitateak dira arlo sozialera zuzentzeko laguntza gehiago behar dutenak (eskaera sozialei edo beharrei erantzuna ematea).

## 3. taula. RESINDEX eragileen arabera

(Koloreen araberako baldintzazko formatua)

	Berrikuntzako gaitasun potentziala	Arlo sozialera zuzendutako orientazioa	Berrikuntza soziala
Enpresak	54	9	3
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	65	35	4
Unibertsitateak	78	22	5
Teknologia-zentroak	100	59	28
<b>ESKUALDEKOA</b>	<b>66</b>	<b>23</b>	<b>5</b>

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

Azkenik, berrikuntza sozialeko indizea oso txikia da sistema osoan. Enpresek, unibertsitateek eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek euskarri handiagoak behar dituzte modu berritzailean arlo sozialera zuzentzeko; hau da, behar / eskaera sozialei modu berri eta ezberdinean erantzuna eman ahal izateko produktu, prozesu, zerbitzu eta metodo berriak edo hobeak sortzeko gai izateko.

## 4. taula. RESINDEX eragileen arabera

(Tonuen araberako mailaketa)

	Berrikuntzako gaitasun potentziala	Arlo sozialera zuzendutako orientazioa	Berrikuntza soziala
Enpresak	ERTAINA	TXIKIA	TXIKIA
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	ERTAINA	ERTAINA	TXIKIA
Unibertsitateak	HANDIA	TXIKIA	TXIKIA
Teknologia-zentroak	HANDIA	ERTAINA	TXIKIA
<b>ESKUALDEKOA</b>	<b>ERTAINA</b>	<b>TXIKIA</b>	<b>TXIKIA</b>

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

4. taulan azaltzen da RESINDEX tonuen araberako mailaketa-sistemaren arabera. Horren helburua indize bakoitzaren maila gutxienerako, erdiko eta gehieneko balioekin alderatuta erakustea da.

## 1.2 Berrikuntzako gaitasun potentziala

5. taulan azaltzen dira berrikuntzako gaitasun potentzialaren indizea osatzen duten bost gaitasunen emaitzak RESINDEXen kontuan hartutako eskualde mailako eragile bakoitzarekin alderatuta.

Jasotako datuetatik abiatuta, hainbat ohar egin dezakegu:

- Lehenengo eta behin, eragile guztien lotura-gaitasuna da RESINDEXeko gaitasun kritikoena. Horren ondorioz, lankidetzaz izateko antolaketa mailako gaitasunen garapena ahula dela esan dezakegu.
- Bigarrenik, ezagutza sortzeko eta garatzeko gaitasuna nahiko landuta dauden gaitasunak direla esan dezakegu, baina oraindik ere hobetu daitezke eskualde osorako.
- Hirugarrenik, barneko sozializazioko eta ikaskuntzako gaitasunak dira eragile guztien artean landuenak: etengabeko prestakuntza, ideiak trukatzeko sistemak eta ezagutzaren barneko transferentzia dira sisteman nahikoa garatuta dauden gaitasunak.

5. taula. Berrikuntzako gaitasun potentziala eragileen arabera

(Koloreen araberako baldintzazko formatua)

	Ezagutza-gaitasuna	Ikaskuntza-gaitasuna	Sozializazioko gaitasuna	Garapeneko gaitasuna	Lotzeko gaitasuna
Enpresak	32	86	86	42	27
Irabazi-asmorik gabeko erakundea	45	78	75	75	53
Unibertsitateak	100	73	94	66	55
Teknologia-zentroak	100	100	100	100	100
<b>ESKUALDEKOAK</b>	<b>57</b>	<b>80</b>	<b>85</b>	<b>61</b>	<b>46</b>

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

6. taulan berrikuntzako gaitasun potentzialaren indizea ikus dezakegu tonuen arabera mailaketa-sistemaren arabera. Berrikuntzako gaitasun potentzialaren indizeak lor dezakeen gehieneko balioa 100ekoa denez, erabilitako tarteak faktore horietako bakoitzaren mailak erakusten ditu balio horrekin alderatuta.

**6. taula. Berrikuntzako gaitasun potentziala eragileen arabera**

(Tonuen arabera mailaketa)

	<b>Ezagutza-gaitasuna</b>	<b>Ikaskuntza-gaitasuna</b>	<b>Sozializazioko gaitasuna</b>	<b>Garapeneko gaitasuna</b>	<b>Lotzeko gaitasuna</b>
Enpresak	ERTAINA	HANDIA	HANDIA	ERTAINA	TXIKIA
Irabazi-asmorik gabeko erakundea	ERTAINA	HANDIA	HANDIA	HANDIA	ERTAINA
Unibertsitateak	HANDIA	HANDIA	HANDIA	ERTAINA	ERTAINA
Teknologia-zentroak	HANDIA	HANDIA	HANDIA	HANDIA	HANDIA
<b>ESKUALDEKOA</b>	<b>ERTAINA</b>	<b>HANDIA</b>	<b>HANDIA</b>	<b>ERTAINA</b>	<b>ERTAINA</b>

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

### 1.3 Arlo sozialera zuzendutako orientazioa

7. taulan ikus daitezke arlo sozialera zuzendutako orientazio-indizearen emaitzak RESINDEXen kontuan hartutako eragile guztietarako. Aurreko atalean bezalaxe, arlo sozialera zuzendutako orientazio-indizerako lortutako datuak ikusita, hausnarketa batzuk egin ditzakegu:

- Proiektu sozialen gobernantza proiektuen faktore kritikoa da. Proiektuen iraunkortasunarekin lotutako arazoa dagoela esan dezakegu; izan ere, lankidetzako eta partaidetza sozialeko egitura ahula da.
- Eskualde mailan, arlo sozialera zuzendutako orientazio-indizeko balioak ikusita, proiektuen zikloarekin lotutako faktoreek (eskuratzea, garapena eta eragina) antzeko puntuazioak dituztela ondoriozta dezakegu. Hori dela eta, oro har, proiektuek gauzatzeko prozesuan egitura harmonikoa dutela esan dezakegu.

Aurreko bi hausnarketek lotura handia dute berrikuntza sozialaren zikloarekin (Mulgan, 2006; Murray eta beste batzuk, 2008). Proiektuaren hasierako unearen (arazoak identifikatzea eta ideiak sortzea) eta ezartzeko unearen (ezagutza ustiatzea, ikaskuntza eta hedapena) arteko fase multzoa hartzen du kontuan ziklo horrek. Hori dela eta, 7. taularen arabera, lehen hiru faktoreetako eskualde mailako multzoan lortutako puntuazioen esanahi numerikoa edozein izanda ere



(ezagutza eskuratzea, proiektu sozialak garatzea eta arazo sozialen eragina), egitura harmonikoa azpimarratzen dugunean, ziklo osoan hiru faktoreek duten garapenaren oreka nabarmenduko dugu. Datu hori baieztatu egiten da eragile motaren arabera irakurketan, baina aldaketa batzuk ere badaude batzuen eta besteen artean; handiagoak enpresen eta unibertsitateen kasuan, eta txikiagoak irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta teknologia-zentroen kasuan.

Ezberdina da, ordea, aztertutako laugarren faktorearen (governantza) portaera. Oro har baxua den intentsitatea erakusten du partaidetzarekin eta lankidetzarekin lotutako datuetan, eta horrek ez du sendotzen edo handitzera zuzentzen eragileen komunitatea eta, horrenbestez, horrek eragina du erakundeen ekintza jarraituan eta sistematikoan.

**7. taula. Arlo sozialera zuzendutako orientazioa eragileen arabera**

(Koloreen arabera baldintzazko formatua)

	<b>Ezagutza eskuratzea</b>	<b>Proiektu sozialen garapena</b>	<b>Proiektu sozialen eragina</b>	<b>Governantza</b>
Enpresak	11	10	10	6
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	36	44	37	21
Unibertsitateak	23	24	28	14
Teknologia-zentroak	81	59	64	32
<b>ESKUALDEKOA</b>	<b>25</b>	<b>27</b>	<b>26</b>	<b>14</b>

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

8. taulan indizearen inguruko beste bertsio bat ikus dezakegu tonuen bidezko mailaketa-sistemaren arabera.

**8. taula. Arlo sozialera zuzendutako orientazioa eragileen arabera**

(Tonuen araberako mailaketa)

	<b>Ezagutza eskuratzea</b>	<b>Proiektu sozialen garapena</b>	<b>Proiektu sozialen eragina</b>	<b>Gobernantza</b>
Enpresak	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA
Irabazi-asmorik gabeko erakundea	ERTAINA	ERTAINA	ERTAINA	TXIKIA
Unibertsitateak	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA
Teknologia-zentroak	HANDIA	ERTAINA	ERTAINA	ERTAINA
<b>ESKUALDEKOA</b>	<b>TXIKIA</b>	<b>TXIKIA</b>	<b>TXIKIA</b>	<b>TXIKIA</b>

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

#### 1.4 Berrikuntza soziala

9. taulan ikus daitezke berrikuntza sozialeko indizearen emaitzak RESINDEXen kontuan hartutako eragile guztietarako.

Berrikuntza sozialeko indizerako lortutako datuak kontuan hartuta, honako hau iradoki dezakegu:

- Enpresak dira sozialki berrikuntza gutxien erakusten dutenak (faktore guztien adierazleak eskualdeko batez bestekoaren azpitik daude).
- Teknologia-zentroek eskualdeko batez bestekoa baino askoz ere handiagoak diren adierazleak dituzte (faktore guztietan).
- Unibertsitateko ikerkuntza taldeak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak eskualdeko batez bestekoaren inguruan daude faktore guztietan.

Muturretan kokatuta dauden bi eragileen portaera arrazoi ezberdinek eragin dute. Enpresetan aztertutako proiektuek arlo sozialera zuzendutako orientazio handiagoa dute aztertutako lau eragileen artean (3. taula). Arlo sozialera zuzendutako orientazio txiki horrek lotura handia du eragilearen ezaugarriekin, erakundearen inguruko ikuspegiarekin eta zereginarekin lotutako kulturarekin. Arlo sozialera zuzendutako orientazio txikia, zalantzarik gabe, are puntuazio txikiagoa izateko aurrekaria da berrikuntza sozialaren mailarekin alderatuta.

Teknologia-zentroek ezagutza eskuratzeko gaitasun handia dute (7. eta 9. taulak) eta, lehen aipatu dugun moduan, funtsezkoa da arazoak identifikatzeko eta ideia berriak sortzeko. Horri teknologia-zentroen misioa, ikuspegia eta finantzaketa-sistema gehitzen badizkiogu, aukerak detektatzeko garaian aurre hartzeko duten gaitasun handiagoa agerian gera daiteke.

Bestalde, logikoa dirudi teknologia-zentroetan enpresetan baino berrikuntza sozialaren kultura handiagoa izatea. Horrekin lotuta, ez dugu ahaztu behar Europako joera (teknologia-zentroek presentzia izateko esparru naturala), azken urteotan, berrikuntzaren ikuspegi integralagoa ahalbidetzea izan dela. Kasu horretan, berrikuntza sozialak gero eta rol nagusiagoa izango du, eta mendekotasuna gutxitzen joango da.

### 9. taula. Berrikuntza soziala eragileen arabera

(Koloreen araberako baldintzazko formatua)

	<b>Ezagutza eskuratzea</b>	<b>Berrikuntza sozialeko proiektuen garapena</b>	<b>Berrikuntza sozialeko proiektuen eragina</b>	<b>Gobernantza</b>
Enpresak	8	8	7	5
Irabazi-asmorik gabeko erakundea	17	19	16	10
Unibertsitateak	19	19	22	12
Teknologia-zentroak	62	44	49	26
<b>ESKUALDEKOA</b>	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>16</b>	<b>9</b>

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

Unibertsitateei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei dagokienez, batez bestekoan kokatuta daude, baina haien puntuazioak nahiko txikiak direla esan dezakegu (hasiera batean, eta alderaketa egin ahal izateko erreferentziarik gabe). Unibertsitateen kasuan, arlo sozialera zuzendutako orientazio txikiak (3. taula) lotura handia izan dezake unibertsitateek beren jardueraren oinarri diren esparruen aniztasunarekin (osasuna, zientzia esperimentalak, teknologia, humanitateak, zientzia sozialak). Baina are harrigarriagoa da arlo sozialera zuzenduta egon arren berritzailetzat har daitezkeen proiektuen kopuru txikia. Irabazi-asmorik gabeko erakundeei dagokienez, nabarmenagoa da arlo sozialera duten orientazio txikia (barneko alderaketa eginda) berritzaile sozial gisa lortutako puntuazioa baino. Azken finean, irabazi-asmorik gabeko erakundeak ezin daitezke hartu prototipo aldetik berritzaileak diren nitxotzat.

10. taulan ageri dira berrikuntza sozialeko indizearen emaitzak tonuen bidezko mailaketa-sistemaren arabera. Teknologia-zentroak albo batera utzita, gainerako

eragileek berrikuntza sozialeko indizea osatzen duten faktore guztietan indize txikia dutela (30ekoa baino txikiagoa) ikus dezakegu.

**10. taula. Berrikuntza soziala eragileen arabera**

(Tonuen araberako mailaketa)

	<b>Ezagutza eskuratzea</b>	<b>Berrikuntza sozialeko proiektuen garapena</b>	<b>Berrikuntza sozialeko proiektuen eragina</b>	<b>Gobernantza</b>
Enpresak	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA
Irabazi-asmorik gabeko erakundea	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA
Unibertsitateak	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA	TXIKIA
Teknologia-zentroak	ERTAINA	ERTAINA	ERTAINA	TXIKIA
<b>ESKUALDEKOA</b>	<b>TXIKIA</b>	<b>TXIKIA</b>	<b>TXIKIA</b>	<b>TXIKIA</b>

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

3. zati honetako informazioak RESINDEXen emaitza orokorrak eta portaera orokorra erakusten ditu, baina kasu batzuetan eragile ezberdinen datuak ere jasotzen ditu. Bistakoa denez, RESINDEXek eragile bakoitzerako datu bereiziak landu ditu eta ikuspegi sistemikoaz gain, aztertutako eragile bakoitzerako azterketa eta informazio espezifikoak ere eskaini ditzake.

Jarraian azaltzen diren zatiak, hain zuzen ere, eragile bakoitzak RESINDEX indize ugarietan izan duen portaera azaltzen du. Lehenengo eta behin, emaitza partikularrak azaltzen dira eta, ondoren, datu orokorrek alderatuta daude. Horrek guztiak informazio esanguratsua eskaintzen du. Hobeto irakurri eta alderatu ahal izateko, eragile guztietarako emaitzak aurkezteko eta azaltzeko eredu bera erabili dugu.

Horrekin lotuta, hurrengo orrialdeetan, eragileen portaeraren azterketa ikusiko dugu honela antolatuta:

- 4. zatia: Enpresetako berrikuntza soziala.
- 5. zatia: Berrikuntza soziala irabazi-asmorik gabeko erakundeetan.
- 6. zatia: Berrikuntza soziala unibertsitateetan.
- 7. zatia: Berrikuntza soziala teknologia-zentroetan.




## **2. zatia: Enpresetako berrikuntza soziala**

## 2.1 Berrikuntzako gaitasun potentziala

Berrikuntzarako gaitasun potentzialaren indizea bost gaitasunek osatzen dute (2. grafikoa). Datuek agerian uzten dute enpresetan gehien garatutako gaitasunak ikaskuntzako eta barneko sozializaziokoa direla. Balio horiek eskualdeko batez bestekotik oso gertu daude. Dena den, ezagutza, garapena (ideia berriak aplikatzea) eta lotura sortzeko (lankidetzeta-harremanak) gaitasunak dira enpresek gutxien garatzen dituzten gaitasunak eskualdeko batez bestekoarekin alderatuta (hurrenez hurren, 25 eta 19 puntuko aldea dago).

2. grafikoa. Enpresetako berrikuntzako gaitasun potentzialaren indizea




Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

## 2.2 Arlo sozialera zuzendutako orientazioa

Arlo sozialera zuzendutako orientazio-indizea lau faktorek osatzen dute (3. grafikoa). Enpresek faktore guztietarako eskualdeko batez bestekoaren oso azpitik dauden balioak dituzte. Eskualdeko batez bestekotik alduen dagoen faktorea proiektu sozialen garapenarena da (17 puntu), eta ondoren, ezagutza eskuratzea (arlotu sozialen inguruan), eta proiektu sozialen eragina (14 eta 16 puntu hurrenez hurren). Dena den, gobernantza da eskualdeko batez bestekoarekiko alde txikiena duena (8 puntu).

3. grafikoa. Gauzatutako gaitasuna. Enpresetako arlo sozialera zuzendutako indizea




Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

### 2.3 Berrikuntza soziala

Enpresetako berrikuntza sozialaren indizea lau faktorek osatzen dute (4. grafikoa). Faktore horietan guztietan, enpresek eskualdeko batez bestekoa baino puntuazio txikiagoa dute. Beste behin, gobernantza da eskualdeko batez bestekoaren puntuazio antzekoena duen faktorea.

4. grafikoa. Gauzatutako gaitasuna. Enpresetako berrikuntza sozialaren indizea



Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta



Proiektu sozialak eta proiektu sozial berritzaileak alderatzen baditugu, agerian geratzen da enpresek berrikuntza sozialeko proiektuak gauzatzen dituztenean (4. grafikoa), eskualdeko batez besteko balioetatik gertuago geratzen direla proiektu sozialak bultzatzen dituztenean baino (3. grafikoa). Gorabehera horrek agerian utz dezake enpresa-proiektuen arlo sozialera zuzendutako orientazioa horren intentzionala ez den arren, jarduera berritzailea nahita egindakoa eta eraldatzaileagoa dela, eta faktore askotan eragin integralagoa duela.

## 2.4 Ikuspegi integratua

11. taulan, RESINDEX ereduaren hiru indizeak ikus daitezke enpresetarako. Alderaketa egiteko, eskualde mailako RESINDEXen balioak ageri dira (3. taula).

Datuetan ikus dezakegunez, enpresek eskualdeko batez bestekoa baino txikiagoak diren berrikuntzako gaitasun potentzialeko eta gauzatutako gaitasuneko indizeak dituzte. Eskualdeko balioekiko aldea handiagoa da berrikuntzako gaitasun potentzian (12 puntu) eta arlo sozialera zuzendutako orientazioan (14 puntu). Dena den, eskualde osoarekiko aldea ez da horren handia berrikuntza sozialeko indizeari behatzen badiogu (2 puntu). Beste nolabait esanda, enpresak arlo sozialera ez daudela oso zuzenduta esan dezakegu, baina orientazio hori dagoenean, sistemako gainerako eragileen antzeko moduko portaera dute.

11. taula. RESINDEX indizea enpresetan

<b>Berrikuntzako gaitasun potentziala</b>	<b>54</b>	Ezagutza- gaitasuna	32
		Ikaskuntza-gaitasuna	86
		Sozializazioko gaitasuna	86
		Garapeneko gaitasuna	42
		Lotzeko gaitasuna	27
<b>Arlo sozialera zuzendutako orientazioa</b>	<b>9</b>	Ezagutza eskuratzea	11
		Proiektu sozialen garapena	10
		Proiektu sozialen eragina	10
		Gobernantza	6
<b>Berrikuntza soziala</b>	<b>3</b>	Ezagutza eskuratzea	8
		Berrikuntza sozialeko proiektuen garapena	8
		Berrikuntza sozialeko proiektuen eragina	7
		Gobernantza	5

Era berean, aipatu beharrekoa da berrikuntzako gaitasun potentzialaren (54) eta arlo sozialera zuzendutakoaren (9) artean dagoen puntuazio-aldea. Pentsa dezakegunez, enpresak gaitasun potentzial horiek beste noranzko batzuetan bideratzen ari dira, oraindik ere arlo sozialarekin lotuta dagoenetik urrun.

Bestalde, berrikuntzako gaitasun potentzialak kontuan hartutako adierazleen artean nabarmen ezberdina den banaketa izan du. Ziklo berritzaileko bigarren fasean, faktore kritikoetan, puntuazio baxuagoak izan ditu (garapena eta lotura).




### **3. zatia: Berrikuntza soziala irabazi-asmorik gabeko erakundeetan**

### 3.1 Berrikuntzako gaitasun potentziala

Irabazi-asmorik gabeko erakundeetako berrikuntzarako gaitasun potentzialaren indizea ikus dezakegu 5. grafikoan. Datuak ikusita, erakunde mota horiek gaitasun heterogeneoak dituztela esan dezakegu. Alde batetik, ezagutza sortzeko gaitasunak txikiagoak dira eskualdeko batez bestekoarekin alderatuta, eta jarraian sozializazioko gaitasunak aipatu behar ditugu. Bestalde, ez dago alde esanguratsurik ikaskuntzarako gaitasunekin alderatuta (batez besteko balioen antzekoak ditu).

Horrez gain, irabazi-asmorik gabeko erakundeek eskualdeko batez bestekoa gainditzen duten garapeneko gaitasunak (ideiak aplikatzea) eta loturarekin lotutakoak (lankidetzaren harremanak) dituzte. Hau da, batez bestekoa gainditzen dute proiektu sozialak aurrera eramateko gaitasunari dagokionez, eta hori lankidetzaren egituren baitan egiteari dagokionez.

5. grafikoa. Irabazi-asmorik gabeko erakundeetako berrikuntzarako gaitasun potentzialaren indizea




Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

### 3.2 Arlo sozialera zuzendutako orientazioa

Irabazi-asmorik gabeko erakundeetako arlo sozialera zuzendutako indizea ikus dezakegu 6. grafikoan. Erakunde mota honen indize barruan dauden balio guztiak dira eskualdeko batez bestekoa baino handiagoak. Dena den, ezin dezakegu esan datu hori harrigarria denik, erakunde horien helburu nagusia eskaera sozialei erantzuna ematea baita. 6. grafikoan ikus dezakegun moduan, irabazi-asmorik gabeko erakundeen balioak eskualdeko batez bestekoa baino 10 puntu handiagoak dira indizea osatzen duten faktore ia guztien kasuan. Joera horren salbuespena

proiektuen gobernantzako egiturara topa dezakegu. Kasu horretan, erakunde horiek ez daude eskualdeko batez bestekotik horren aldentuta (7 puntuko aldea bakarrik).


6. grafikoa. Gauzatutako gaitasuna. Arlo sozialera zuzendutako indizea irabazi-asmorik gabeko erakundeetan



Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

### 3.3 Berrikuntza soziala

7. grafikoa. Gauzatutako gaitasuna. Berrikuntza sozialaren indizea irabazi-asmorik gabeko erakundeetan



Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

Irabazi-asmorik gabeko erakundeetako berrikuntza sozialaren indizea ikus dezakegu 7. grafikoan. Faktore horietan guztietan, irabazi-asmorik gabeko erakundeek berrikuntza sozialeko eskualdeko batez bestekoa berdindu edo gainditu dute. Hori dela eta, erakunde mota horiek arlo sozialera modu berritzailean zuzentzen direla esan dezakegu, baina ez da hori gertatzen (ez oso modu nabarmenean behintzat) eskualdeko batez besteko balioekin alderatuta. Datu hori esanguratsua dela esan dezakegu erakunde horiek eskualdeko batez bestekotik nabarmen aldentuta daudela kontuan hartzen badugu berritzaileak ez diren proiektu sozialak oinarri hartzen ditugunean (6. grafikoa). Alde hori ikusita, honako hau esan dezakegu: nahiz eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak arlo sozialera oso zuzenduta egon, gutxi berritzen dute eta, berritzen dutenean, ez dute eskualdeko beste eragile batzuekiko oso ezberdina den portaera.

### 3.4 Ikuspegi integratua

12. taulan, RESINDEX ereduaren hiru indizeak ikus daitezke irabazi-asmorik gabeko erakundeetarako. Alderaketa egiteko, eskualde mailako RESINDEXen balioak azaltzen dira (3. taula).

Datuak ikusita, irabazi-asmorik gabeko erakundeen indizeak eskualde osokoaren antzekoak direla esan dezakegu. Erakunde mota horrek eskualdeko batez bestekoaren antzekoa den berritzeko gaitasun potentziala du, eta eskualdeko batez bestekoa 10 puntu baino gehiagoan gainditu du arlo sozialera zuzendutako orientazio-indizean. Dena den, berrikuntza sozialeko indizea eskualdeko batez bestekoaren berdina da.

11. taula. RESINDEX indizea enpresetan

<b>Berrikuntzako gaitasun potentziala</b>	<b>65</b>	Ezagutza- gaitasuna	45
		Ikaskuntza-gaitasuna	78
		Sozializazioko gaitasuna	75
		Garapeneko gaitasuna	75
		Lotzeko gaitasuna	53
<b>Arlo sozialera zuzendutako orientazioa</b>	<b>35</b>	Ezagutza eskuratzea	36
		Proiektu sozialen garapena	44
		Proiektu sozialen eragina	37
		Gobernantza	21
<b>Berrikuntza soziala</b>	<b>4</b>	Ezagutza eskuratzea	17
		Berrikuntza sozialeko proiektuen garapena	19
		Berrikuntza sozialeko proiektuen eragina	16
		Gobernantza	10

Oro har, datu hauek azpimarra ditzakegu:

- Berrikuntzako gaitasun potentzial horrek hobetzeko tarte handia du ezagutzaren eta loturaren adierazleetan. Egia da bi kasu horietan lortutako puntuazioak nahikoa direla, baina aurrez ikus daitekeenez, hobekuntza nabarmenak eragina izango luke potentzialtasun berritzailean.
- Gauzatutako gaitasunari dagokionez, arlo sozialera zuzendutako orientazioan zein berrikuntza sozialean, gobernantzaren faktoreak izan ditu balio txikienak. Aipatu dugun moduan, gobernantzak adierazten ditu honako hauek: elkarrizketa, partaidetza, sozializazioa, lankidetzeta eta abar. Beste nolabait esanda, gobernantzak erakundeak sendotu, eta jarraituago eta iraunkorrago bihurtzen ditu.






## **4. zatia: Berrikuntza soziala unibertsitateetan**

#### 4.1 Berrikuntzako gaitasun potentziala

Unibertsitateetan berrikuntzak egiteko gaitasun potentzialaren indizea 8. grafikoan dago azalduta. Datuek adierazten dute ikerketa taldeek berrikuntzarako gaitasun handia dutela. Gainera, gaitasun potentzialaren indizearen bidez neurtutako ia gaitasun guztiek eskualdeko batez bestekoa gainditzen dute. Bereziki, jakintza sortzeko gaitasunak; indizearen baliorik handiena baitu. Antzekoa esan daiteke barne-sozializatorako gaitasunari buruz ere; ia indizearen baliorik handienara iristen baita (94 puntu). Ikasteko gaitasuna eskualdeko batez bestekoaren azpitik dago eta horrek esan nahi du unibertsitateek gaitasunen araberako taldeko prestakuntza-jarduera gutxiago egiten dituztela proportzioan. Azkenik, garatzeko gaitasuna (ideiak aplikatzea) eskualdeko batez bestekotik ez da asko urrundu (5 puntu) eta lotzeko gaitasuna (lankidetzeta), berriz, eskualdeko batez bestekotik 9 puntura dago.

8. grafikoa. Unibertsitateetako berrikuntzako gaitasun potentzialaren indizea




Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkest

#### 4.2 Arlo sozialera zuzendutako orientazioa

Unibertsitateetarako orientazio sozialaren indizea 9. grafikoan ikus daiteke. Ikerketa taldeen kasuan, indizearen barruko balio ia guztiak eskualdeko batez besteko balioen inguruan gabiltza. Proiektu sozialen garapenari dagokiona pixka bat beherago dago eta horren eragina pixka bat gorago.

9. grafikoa. Gauzatutako gaitasuna. Unibertsitateetako arlo sozialera zuzendutako indizea




Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

Datuek unibertsitateen jokabidearen homogeneotasuna berresten dute arlo sozialera zuzendutako orientazioaren indizea osatzen duten lau faktoreetatik hirutan. Horretarako, aldez aurretiko jarrera ona behar da lehen ere aipatu dugun berrikuntzaren zikloa betetzeko.

#### 4.3 Berrikuntza soziala

Ikerketa taldeen berrikuntza sozialerako indizea 10 grafikoa ikus daiteke. Berrikuntza sozialerako indizea osatzen duten faktore guztietan, ikerketa taldeek berrikuntza sozialaren eskualdeko batez bestekoa gainditzen dute. Arlo sozialera zuzendutako orientazioarekin gertatzen den moduan, gobernantza da puntuaziorik baxuena lortu duen faktorea, eskualdeko batez bestekoaren gainera egon arren.

10. grafikoa. Gauzatutako gaitasuna. Unibertsitateetako berrikuntza sozialaren indizea



Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

#### 4.4 Ikuspegi integratua

13. taulan ikerketa taldeei aplikatutako RESINDEX ereduaren hiru indizeak ikus daitezke, eskualdeko indizeekin alderatuta (3. taula).

Datuek erakusten dute unibertsitateak urruti daudela eskualdeko batez bestetik berrikuntzarako gaitasun potentzialean. Berrikuntzarako potentzialtasun hori izan arren, ikerketa taldeek eskualdeko jokabide berdina dute arlo sozialera zuzendutako orientazioari eta berrikuntza sozialari dagokionez, balioak eskualdeko batez bestekoen antzekoak baitira.

13. taula. RESINDEX indizea unibertsitateetan

<b>Berrikuntzako gaitasun potentziala</b>	<b>78</b>	Ezagutza- gaitasuna	100
		Ikaskuntza-gaitasuna	73
		Sozializazioko gaitasuna	94
		Garapeneko gaitasuna	66
		Lotzeko gaitasuna	55
<b>Arlo sozialera zuzendutako orientazioa</b>	<b>22</b>	Ezagutza eskuratzea	23
		Proiektu sozialen garapena	24
		Proiektu sozialen eragina	28
		Gobernantza	14
<b>Berrikuntza soziala</b>	<b>5</b>	Ezagutza eskuratzea	19
		Berrikuntza sozialeko proiektuen garapena	19
		Berrikuntza sozialeko proiektuen eragina	22
		Gobernantza	12

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

Unibertsitateen jokabideak distantzia esanguratsua erakutsi du gaitasun potentzialaren eta gauzatutako gaitasunaren artean. Hainbat arrazoiengatik izan daiteke hori:

- Berrikuntzarako gaitasun potentzialaren indizearen emaitzek lankidetzarako (Lotzeko gaitasuna) eta garapenerako (ideia berriak proiektuetara aplikatzea) gaitasun txikiagoa erakutsi dute gaitasunarekin lotuta neurtutako beste adierazleekin alderatuta. Kontu hori garrantzitsua da; izan ere, lankidetzeta eta garapena funtsezkoak dira berrikuntza-zikloaren bigarren fasean, aplikazioen denboran, irtenbideetan eta hedapenean.
- Badirudi puntuaziorik onena eskuratu duten gaitasun potentzialaren adierazleek (jakintza eta sozializazioa) barneko alorrean bideratzen dutela funtsezko eragina. Ematen du gaitasun horiek bananduta daudela; hau da, ez daudela arazo sozialekin eta unibertsitatetik kanpoko erakundeekin lotzeko estrategietan behar bezala lotuta.

Horrek, hein handia batean, azal dezake berrikuntzarako gaitasun potentzialaren indizean lortutako puntuazioaren (78) eta gizarte arlorako zuzendutako orientazioaren indizean lortutakoaren (22) arteko distantzia izatea aztertutako eragile guztien arteko distantziarik handiena; enpresena baino handiagoa. Era berean, berrikuntza sozialaren indizean lortutako puntuazioak adierazten du hobetzeko tarte handia dagoela berrikuntzarako duen gaitasun potentzial handia behar bezala errentagarri bihurtzeko hibridazio eta gobernantza mailak asko hobetu behar dituen erakunde batean.



**5. zatia: Berrikuntza soziala  
teknologia-zentroetan**




## 5.1 Berrikuntzako gaitasun potentziala

Teknologia-zentroetan berrikuntzak egiteko gaitasun potentzialaren indizea 11. grafikoan dago azalduta. Teknologia-zentroek dituzte sistema osoan berrikuntzarako gaitasun handienak. Hortaz, indizearen egitura osatzen duten gaitasun guztietan, teknologia-zentroek lor daitezkeen balio handiena dute (100 puntu).

Horren azalpena teknologia-zentroak proiektuen garapenean espezializatuta egotea izan daiteke. Gainera, RESINDEXen erabilitako neurketa-unitatea proiektua da.

11. grafikoa Teknologia-zentroetako berrikuntzako gaitasun potentzialaren indizea




Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

Osagarri gisa, zentro horiek beste eragileek baino askoz finantzaketa handiagoa eskuratzen dute proiektuak garatzetik. Gainera, urteak dira teknologia-zentroek haien jarduerak nazioartekotu dituztela, bazkide motak dibertsifikatu eta lankidetzaz-erperientziak hainbat motatako erakundeekin partekatu dituztela. Horrek guztiak lagundu egiten du berrikuntzaren zikloaren garapenean beharrezkoak diren lan guztiak esperimentatzen eta hobetzen eta badirudi hori dela teknologia-zentroek berrikuntzarako gaitasun potentzialean lortutako puntuazio altuen azalpena.

## 5.2 Arlo sozialera zuzendutako orientazioa

Teknologia-zentroetan arlo sozialera zuzendutako orientazioaren indizea 12. grafikoan ikus daiteke. Teknologia-zentroek indizearen egitura osatzen duten faktore guztietan gainditzen dute eskualdeko batez bestekoa. Horrek iradokitzen du teknologia-zentroek arlo sozialera bideratutako jarduera asko garatzen dituztela.

12. grafikoa Gauzatutako gaitasuna. Teknologia-zentroetako arlo sozialera zuzendutako indizea




Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

### 5.3 Berrikuntza soziala

Teknologia-zentroetan berrikuntza sozialaren indizea 13. grafikoan ikus daiteke. Teknologia-zentroek indizearen egitura osatzen duten faktore guztietan gainditzen dute eskualdeko batez bestekoa. Aipagarria da proiektu berritzaileen garapenari, eraginari eta gobernantzari lotutako faktoreak ezagutza eskuratzea baino proportzio txikiagoan aldentzen direla batez bestekotik. Ezagutza eskuratzea da, hain zuzen, teknologia-zentroetan berrikuntza sozialaren indizean pisurik handiena duen faktorea.

13. grafikoa Gauzatutako gaitasuna. Berrikuntza sozialaren indizea teknologia-zentroetan



Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

Ezagutza eskuratzeko faktorean lortutako puntuazio altu hori (62) arlo sozialera bideratutako orientazioaren indizean (81, 12. grafikoa) ere ikusi dugu faktore berari lotuta. Horrek adierazten du esperientzia eta praktikarako potentziala dagoela arazoetara gerturatzean eta hainbat ikuspegitatik hartutako orientazioan.

#### 5.4 Ikuspegi integratua

6. taulan ikus daitezke RESINDEX ereduaren hiru indizeak teknologia-zentroen kasurako, RESINDEXen eskualdeko balioekin alderatuta (3. taula).

Teknologia-zentroetarako indizeek erakusten dute eskualdean posizio onena duten eragileak direla. Hasteko, berrikuntzarako gaitasun potentzialaren indizeak RESINDEXek onartzen duen baliorik altuena du, eskualdeko batez bestekoaren oso gainetik. Bigarrenik, teknologia-zentroen arlo sozialera zuzendutako orientazioaren indizeak ia hirukoiztu egiten du eskualdeko batez bestekoa. Hirugarrenik, teknologia-zentroak berrikuntza sozialean inplikaturako eragile gisa nabarmentzen dira, indizean eskualdeko batez bestekoa baino ia 6 aldiz puntuazio altuagoa eskuratu baitute.

14. taula. RESINDEX indizea teknologia-zentroetan

<b>Berrikuntzako gaitasun potentziala</b>	<b>100</b>	Ezagutza- gaitasuna	100
		Ikaskuntza-gaitasuna	100
		Sozializazioko gaitasuna	100
		Garapeneko gaitasuna	100
		Lotzeko gaitasuna	100
<b>Arlo sozialera zuzendutako orientazioa</b>	<b>59</b>	Ezagutza eskuratzea	81
		Proiektu sozialen garapena	59
		Proiektu sozialen eragina	64
		Gobernantza	32
<b>Berrikuntza soziala</b>	<b>28</b>	Ezagutza eskuratzea	62
		Berrikuntza sozialeko proiektuen garapena	44
		Berrikuntza sozialeko proiektuen eragina	49
		Gobernantza	26

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

Nolanahi ere, zentro horien barneko alderaketan, deigarria da gobernantzaren faktorean eskuratutako puntuazioa, bai arlo sozialera zuzendutako orientazioaren indizean, bai berrikuntza sozialaren indizean. Ezin da ahaztu gobernantza erakundeen jardueraren eta konektagarritasunaren adierazlea dela eta oso kontuan hartzen dela erakundeen iraunkortasunean duen eraginagatik.



## **6. zatia: RESINDEX: Aurkikuntzak eta orientazioak**

Ikerketak ez dira errealitateari buruzko informazio- eta ezagutza-iturriak bakarrik, baita pertsonen eta erakundeen ekintzak gidatzeko tresnak ere.

RESINDEX proiektu pilotuak frogak, joera komunak, zantzuak eta, azken finean, errealitateak azaleratzen dituzten aurkikuntzak ematen ditu. Gainera, eragileen, erakundeen eta pertsonen ekintzak erabakiak hartzera bideratzen ditu.

RESINDEX eskualdeko berrikuntza soziala neurtzeko saiakeran emandako lehen urrats apala da. Hasierako urratsa denez, perfektionatzeko, errepikatzeko eta egiaztatzeko beharra duten neurketa-ereduek eskatzen duten zuhurtziaz jokatu behar da.

Hala ere, RESINDEXen emaitzek aurkikuntza interesgarri batzuk egiteko eta hainbat orientazio emateko aukera ematen digute.

## **6.1 Aurkikuntzak**

### 6.1.1 Gaitasun potentzialari buruz

Berrikuntzarako gaitasun potentzialak

- Ikerketa honetan aztertutako eragileek berritzeko behar adina gaitasun potentzial dute (66), baina desorekak daude banaketan.
- Ikasteko (antolaketarako gaitasunak) eta sozializatzeko (ideien, ezagutzaren, informazioaren sozializazioa) gaitasunak bereziki esanguratsuak dira eta puntu asko lortzen dituzte eskualdeko batez bestekoan: 80 (ikaskuntza), 85 (sozializazioa).
- Loturetarako gaitasuna (networking, lankidetzak, sareak) RESINDEX ereduak neurtzen dituen bostetatik mugatuena da (46). Hala da eskualdean eta baita, oro har, aztertutako eragileen kasuan ere.
- Teknologia-zentroek eta unibertsitateek gehieneko puntuazioa lortu dute ezagutza-gaitasunaren neurketan (100).
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeek emaitza onak eta homogeenak lortu dituzte neurtutako hiru gaitasunetan: ikaskuntza (78), sozializazioa (75), garapena (75).
- Teknologia-zentroek gehieneko puntuazioa (100) lortu dute berrikuntzarako gaitasun potentzialaren indizean. Zentro horiek proiektuak garatzera bideratuta egoteak eta duten esperientziak azal dezakete neurtu ditugun gaitasun guztietan homogeenoa den jokabide hori. Hau da, proiektuak garatzeko trebakuntza jaso duten eta horretara bideratuta dauden eragileak dira.
- Enpresek, gainerako eragileekin alderatuta, puntuazio txikiak dituzte neurtutako bi gaitasunetan: ezagutza (32) eta lotura (27).

### 6.1.2 Gauzatutako gaitasunari buruz

#### Arlo sozialera zuzendutako orientazioa

- Arlo sozialera zuzendutako orientazioaren indizea da gauzatutako gaitasunaren lehen froga eta oso balio baxua eskuratu du (23). Enpresen kasuan, desbideratze nabarmena du (9).
- Oro har, eragileek nahiko balio homogeenak dituzte aintzat hartutako lau faktoretatik hirutan ezberdinak izan arren (ezagutza eskuratzea, proiektu sozialak garatzea eta proiektu sozialen eragina).
- Proiektuen gobernantza (elkarrizketa, partaidetza, sozializazioa, lankidetzak) da eragile guztientzako faktorerik kritikoenak; eskualdeko batez bestekoa 14 puntutan dago eta hori da neurtutako faktoreen artean puntuazio baxuena lortu duena.
- Unibertsitateen arlo sozialera zuzendutako orientazioa (22) eskualdeko batez bestekoa (23) baino pixka bat baxuagoa da eta ikerketari eta garapenari buruz beste azterlan batzuetan ikusitako joera berresten du; hau da, esan daiteke distantzia esanguratsua dagoela eskaera sozialen unibertsitateko ikerketa-sareak eman ditzakeen erantzunen artean.

#### Berrikuntza sozialera zuzendutako orientazioa

- RESINDEX ereduarekin eskuratutako hiru indizeetatik baliorik baxuena (5) duen indizea da honakoa.
- Eragile batek bakarrik —teknologia-zentroak— lortu du eskualdeko batez bestekoa baino askoz puntuazio altuagoa (28). Gainerako eragileak eskualdeko batez bestekoaren parean edo pixka bat beherago ibili dira; hau da berrikuntza sozialerako gaitasun gauzatua antzekoa dute.
- Arlo sozialera gehien bideratutako bi eragileek —irabazi-asmorik gabeko erakundeak (35) eta teknologia-zentroak (59)— beherakada berdina izan dute (31 puntu gutxiago bi kasuetan) proiektuen berrikuntza sozialaren mailaren neurketetan.
- Berrikuntza sozialaren indizearen faktoreen neurketak, oro har, egitura harmoniaduna du, gobernantzaren kasuan izan ezik. Badirudi horrek berretsi egiten duela berrikuntza sozialeko proiektuak egiteko gaitasuna konbinazio baten arabera kontu espezializatu bat izatearen ideia.

## 6.2 Orientazioak

- Erakundeek, oro har, behar adinako “ezagutza” maila dute. Beste kontu bat da ezagutza horren orientazioa; hau da, gaitasun potentzial bat egiteko gaitasun bihurtzea. Ohar honek adierazi nahi duena da ahaleginak ez direla bideratu behar erakundeen prestakuntza maila handitzera, baizik prestakuntzarako gaitasun hori berrikuntza sozialerako ziklorako beharrezkoak diren gaitasunak garatzera bideratu behar dela: kanpoko ezagutza xurgatzea, ezagutza konbinatzea, arazoak identifikatu eta interpretatzea eta abar.



- “Lankidetzta” funtsezko osagaia da; izan ere, aukerak ematen ditu bai berrikuntzarako, oro har, bai berrikuntza sozialetarako zehazki. RESINDEXek erakusten du, oro har, eragileek gehiago aritu behar dutela lankidetzan eta gehiago nahastu behar dutela elkarren artean.
- “Gobernantza” lankidetzarekiko mendekotasun handia duen faktorea da. Nahi izanez gero, lankidetzta “gobernantzarako” baldintza edo iragazki izan daiteke. Faktore oso garrantzitsua da, iraunkortasunarekin zuzenean lotuta dagoelako. Iraunkortasuna proiektuen, lankidetzan, sareen eta erakundeen jarraipen moduan ulertuta. Berrikuntza sozialerako esperientziak horrela izaten dute igotzeko, egokitzeko, errepikatzeko eta hobetzeko aukera. Eragileek serio hartu behar lukete gai hau.
- “Sozial” kontzeptuak berak berrikuntza sozialak ez duela eragile pribilegiaturik onartzen adierazten du; izan ere, eragileen arteko hibridazioak eman behar ditu emaitza emankorrak. Berrikuntzarako proiektuetarako diru-laguntza publikoen zati bat ezaugarri ezberdinetako eragileen arteko lankidetzara egokitzea proiektu eta kultura berritzaileen integrazioa eta hibridazioa sustatzeko modu bat da.
- “Berrikuntza soziala” amaiera bat da, hura ahalbidetzen duten faktoreak sustatzeko gaitasunak eta estrategiak aldi berean gertatzea eskatzen dituen ziklo bat. RESINDEX indizeak autonomoak dira elkarren artean eta horien artean ezin da frogatu gabeko loturarik ezarri. RESINDEX indizeek ematen dituzte, ordea, irismen eta hedadura handiagoko berrikuntza sozialeko jarduera izateko beharrezko baldintzak zein diren jakiteko zantzuak.

## **7. zatia: RESINDEX: Etorkizuneko gakoak**

## 7.1 Proiektu pilotuaren mugak

Emaitzen azterketak iradokitzen du berrikuntza soziala aztertzeke eta neurtzeke eredu kontzeptual bat, dimentsioak eta adierazleak egitea lortu dela. RESINDEXen egitura interesgarria da, berrikuntza soziala neurtzeaz gain, eskualdeko erakundeen gaitasunak eta orientazio soziala ere neurtzen dituelako. Eredua oparoa da prozesu horiek neurtzeke eta berrikuntza soziala sustatzeko politikak eta tresnak diseinatzeko.

Aurrerapen hori egin arren, azterketaren eta emaitzen bi muga azaltzea komeni da:

- a) Neurtzeke tresna: RESINDEX inkestako galdera-sorta konplexua da eta galdera batzuk hobetu eta zehaztu egin behar dira jakin nahi den datua hobeto hartzeko. Hori gertatzen da ikasteko, sozializatzeko eta garatzeko gaitasunei buruzko galderetan. Galdera-sortan hobeto zehaztu beharra dago berrikuntza soziala zer den.
- b) Aztertzeke unitateak: RESINDEXen analisi-unitateak eskualdeko erakundeak dira. Horrek alde batera uzten du sisteman garrantzitsua den eragile bat: zerbitzuen bidez zuzenean mota askotako berrikuntza sozialak garatzen dituzten administrazio publikoak. RESINDEXek eragile garrantzitsu hori kontuan hartu behar du eta, horretarako, galdera-sorta eta ereduaren dimentsioa egokitu egin beharko dira.

## 7.2 Hurrengo urratsak

RESINDEX berrikuntza sozialaren eskualdeko barometro gisa egonkortzeko, beharrezkoa da berrikuntza soziala azaltzeko hainbat aldagaien kausa-harremanen eta jokabidearen inguruko ikerketa sistema indartzea. Helburu hori izanik, hiru ikerketa-ildo osagarri garatu behar dira:

- a) Kasuen azterketak: Galdera-sorta aplikatzeetik abiatuta, sakonago aztertu beharreko berrikuntza sozialeko hogeit hamar kasu inguru identifikatu ahal izan genituen aldagaien arteko zenbait harreman kualitatiboki baliozkotzeko datu-bilketarako tresna hobetzearekin zuzenean lotuta.
- b) Galdera-sortaren bigarren aplikazioa: Neurketarako tresnaren eta ereduaren aldagaien kalitatea hobetzeko, beharrezkoa da aldagaien arteko erregularitasunak identifikatuko dituen bigarren neurketa egitea.
- c) Ikerketa alderatuak: Azterketa kualitatiboaz eta lehen aipatutako aldaketekin galdera-sorta bigarrenez aplikatzeaz gain, beharrezkoa da eredu hau beste testuinguru geografiko batean aplikatzea. Funtsezko proba da hori testuinguruari lotutako dimentsioak eta aldagaiak eta unibertsalak direnak bereizteko.

**ERANSKINA: Administrazio publikoa:  
Berrikuntza sozialaren  
bultzatzailea**

## **E.1 Sektore publikoko berrikuntzaren neurketari buruzko hausnarketak**

Sektore publikoan berrikuntza neurtzeko erronkak jada bere historia du Europako eta munduko testuinguruan eta erakunde publikoek berrikuntzak egiteko duten moduari buruz zenbait azterlan espezifiko ere ekoitzi ditu.

Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen eta Eurostaten 2005eko Osloko Eskuliburuak aipatu zuen sektore publikoan berrikuntza aztertzearen erabilgarritasuna. Ondorengo urteetan, eta batez ere 2010ean eta 2011n, hainbat ekimen esanguratsu egin ziren bide horretan.

Europar, UNU MERIT Herbeheretako taldeak Innobarometer 2010en erreferentziazko azterlan bat garatu zuen, *A Taxonomy of Innovation. How Do Public Agencies Innovate?* izenekoa. 2011n argitaratu zuten eta sektore publikoko neurketari buruzko metodologiak alderatu zituen lan horrek. UNI MERITek zeregin aktiboa izan du EPSIS (European Public Sector Innovation Scoreboard) proiektuaren garapenean. Lan horrek, gai honi buruzko definizioak, adierazleak eta azterketak ditu.

MEPIN proiektua (Measuring Public Innovation In The Nordic Countries) dago 2010ean argitaratutako Kopenhageko Eskuliburuaren oinarrian. Erreferentziazko testua da sektore publikoko berrikuntzari buruzko azterlanetarako.

2011n argitaratutako NESTAren *Innovation in Public Sector Organizations: A Pilot Survey for Measuring Innovation Across the Public Sector* da sektore publikoko neurketarako beste saiakuntza bat.

Australian, 2011n garatutako APSII (The Australian Public Sector Innovation Indicators) proiektua eta AEBn, *Capital Ideas. How to Generate Innovation in the Public Sector* izeneko sektore publikoko berrikuntzari buruzko txostena aipagarriak dira. Txosten hori Young Foundation-ek eta Center for American Progress-ek garatu zuten eta 2010ean argitaratu zen.

Laburpen txiki horrek erakusten du, batetik, sektore publikoko berrikuntza herrialde askotan aztertzen duten gaia dela eta, bestetik, berrikuntza publikoa modu espezifikoan lantzeko joera dagoela. Nolanahi ere, ez dago berrikuntza sozialari buruzko garapenik sektore publikoan.

## **E.2 RESINDEX eta berrikuntza soziala sektore publikoan**

Txosten honen 12-15 orrialdeetan bildutako Laburpen Exekutiboan azaldu dugu RESINDEX ereduak ez duela Administrazio Publikoa beste eragileen maila berean jartzen eta ez duela ikerketa hau osatzen duten beste lau eragileak tratatzen dituen modu berdinean tratatzen.

Hala ere, Administrazio Publikoak proiektu sozialak eta proiektu sozial berritzaileak sustatzeko duen zeregina oso garrantzitsua dela kontuan izanik, ikerketa honetan zeregin horri hiru funtzio aintzat hartuta erreparatu diogu:

- a) Administrazio Publikoa proiektuetarako ideien iturri gisa
- b) Administrazio Publikoa proiektu sozialetako lankidetzarako bazkide gisa
- c) Administrazio Publikoa proiektu sozialak finantzatzeko iturri gisa

Hiru funtzio horiek kontuan hartuta, ondorengo orrialdeetan, batetik, aztertutako eragile bakoitzaren eta Administrazio Publikoaren arteko harremana azalduko dugu eta, bestetik, Administrazio Publikoak berrikuntza sozialaren bultzatzaile moduan duen zeregina.

Azken hori neurtzeko, alderatu egin ditugu RESINDEX osatzen duten hiru indizeen emaitzak eta aintzat hartutako eragile bakoitzak Administrazio Publikoarekin duen harremana; Administrazio Publikoa ideien iturri, lankidetzarako bazkide edo finantzaketa-iturri gisa hartuta.

Beraz, aztertutako eragile bakoitzean antzemandako berrikuntzaren intentsitatearen eta Administrazio Publikoarekin duen harremanaren intentsitatearen arteko harreman uniboko eta esanguratsua zenbateraino dagoen aztertu dugu.

Aipagarria da, halaber, txostenean erabilitako logikari jarraituz, kapitulu honetan koloredun baldintzazko formatu bat erabili dugula emaitzak erakusteko. Horren helburua datuak zenbaki bidez baino modu adierazgarriagoan aurkeztu eta ulermena erraztea da. Lehen azaldu dugun moduan, kolore gorria balio baxuenei dagokie, horia erdiko balioei eta berdea altuenei. Tonuak balio bakoitza aurrekoari zenbat inguratzen zaion kontuan hartuta egokituta daude<sup>4</sup>.

4 Atal honetako datu guztiak ehunekoak dira. Zenbaki bidez daude aurkeztuta Otik 100erako balioak dituen RESINDEX indizearekiko koherentziari eusteagatik. Datuak RESINDEX indize bakoitzaren intentsitate mailaren arabera multzokatuta dauden tauletan (16, 18 eta 20), emaitzak aintzat hartutako talde bakoitzarekiko ehunekoei dagozkie

### E.3 Administrazio publikoa: Ideia berrien iturri

15. taulak erakusten du kontsulta egin zaien 100 eragileetatik 15ek Administrazio Publikoa ideia berrien iturri gisa hartzen dutela. Batez besteko balioak zehaztaperen ezberdina du aintzat hartutako eragile motaren arabera. Hortaz, Administrazio Publikoaren funtzioa, ideia-iturri gisa, enpresetan baino hamar bider esanguratsua da zentro teknologikoetan. Puntuazio handienaren eta txikienaren erakusle dira.

15. taula Administrazio publikoa ideien iturri gisa, eragileen arabera


<b>Administrazio Publikoa IDEIEN ITURRI</b>	<b>15</b>	Enpresak	5
		Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	16
		Unibertitateak	23
		Teknologia-zentroak	50

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

Horrez gain, 14. grafikoak Administrazio Publikoak ideia-iturri gisa duen funtzioaren eta eragileek Berrikuntza Sozialaren indizean lortzen dituzten balioen artean harremana dagoela erakusten du. Hau da, baliorik altuenak eskuratzen dituzten eragileak dira Administrazio Publikoa ideia-iturri gisa gehien hartzen dutenak, edota bestela esanda, gehien berritzen duena da Administrazio Publikoa ideia-iturri gisa gehien hartzen duena. Hartara, harreman lineal bat dago berrikuntza sozialaren eta Administrazio Publikoarekiko loturaren artean, Administrazio Publikoa ideia-iturri moduan hartuta.

#### 14. grafikoa Administrazioa ideien iturri gisa berrikuntza sozialeko indizearen intentsitate mailen arabera

(Ardatz horizontalak BEHEKOA, ERTAINA ETA ALTUA kategoriek in lotutako RESINDEX indizea erakusten du. Aldiz, ardatz bertikalak kategoria bakoitza osatzen duten eragileen arteko "administrazio publikoa ideien iturri gisa" faktorearen batez besteko balioa erakusten du)



Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

#### E.4 Administrazio publikoa: Lankidetzako bazkidea

16. taulan ikus daiteke eragileen eta Administrazio Publikoaren lankidetzak maila 100etik 20ra iristen dela. Balio horrek, berriro ere, aintzat hartutako eragile motaren arabera gorabeherak ditu. Zehazki, teknologia-zentroek eta irabazi-asmorik gabeko erakundeek dute Administrazio Publikoarekin lankidetzak erregularragoa.

16. taula Administrazio publikoa eragileen arabera ideien lankidetzarako bazkide gisa


<b>Administrazio Publikoa LANKIDETZAKO BAZKIDE</b>	<b>20</b>	Enpresak	5
		Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	31
		Unibertsitateak	25
		Teknologia-zentroak	38

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

Bestalde, 15. grafikoak 16. taulan (20) adierazitako lankidetzaren balioa RESINDEX Berrikuntza Sozialaren indizean eskuratutako emaitzekin lotzen du. Kasu honetan ere, Administrazio Publikoaren lankidetzaren maiztasuna handiagoa dela ikusi dugu Berrikuntza Sozialaren indizean balio handienak eskuratzen dituzten eragileetan. 14. grafikoan ikusitako harreman lineala 15. grafikoan ere azaltzen da, ia modu mimetikoan.

**15. grafikoa Administrazio Publikoaren lankidetzarako bazkide gisa,  
RESINDEX indizeen intentsitate mailen arabera**

(Ardatz horizontalak BEHEKOA, ERTAINA ETA ALTUA kategoriekkin lotutako RESINDEX indizea erakusten du. Aldiz, ardatz bertikalak kategoria bakoitza osatzen duten eragileen arteko "administrazio publikoaren lankidetzarako bazkide gisa" faktorearen batez besteko balioa erakusten du)



Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

Azkenik, 17. taulak erakusten digu irabazi-asmorik gabeko erakundeetan izan ezik, Foru Aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin baino txikiagoa dela eragileen lankidetzarako maiztasuna Udalekin. Bestela esanda, Administrazioaren neurria zenbat eta handiagoa izan, lankidetzaren orduan eta ohikoagoa dela ondoriozta daiteke



**17. taula. Administrazio publikoko lankidetzazko bazkideak eragileen arabera**

(Koloreen araberako baldintzazko formatua)

	Udalak	Foru Aldundiak	Eusko Jaurlaritzak
Enpresak	0	2	5
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	19	15	15
Unibertsitateak	8	16	18
Teknologia-zentroak	25	38	38
<b>ESKUALDEKOA</b>	<b>9</b>	<b>11</b>	<b>13</b>

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

### E.5 Administrazio publikoa: Finantzaketa-iturria

Txosten honetan aipatu ditugun Administrazio Publikoaren hiru funtzioetatik -idea berrien iturri, lankidetzazko bazkide eta finantzaketa-iturri izatea- azken hori da ohikoena.

Hala, 18. taulak zera adierazten du, 10 eragiletatik 5ek Administrazio Publikoa finantzaketarako ohiko iturritzat dutela. Hori horrela, aipagarria da 10 enpresetatik 1ek bakarrik erabiltzen duela Administrazio Publikoa finantzaketa-iturri moduan, joera orokorretik aldentuta.

**18. taula. Administrazio publikoa finantzaketarako iturri gisa eragileen arabera**


<b>Administrazio Publikoa FINANTZAKETA ITURRI</b>	<b>50</b>	Enpresak	10
		Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	85
		Unibertsitateak	53
		Teknologia-zentroak	100

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

16. grafikoak Administrazioak finantzaketa-iturri moduan duen funtzioaren eta eragileek Berrikuntza Sozialaren indizean lortzen dituzten balioen artean harremana dagoela erakusten du. Gainera, RESINDEX Berrikuntza Sozialaren indizean puntuazio altuenak eskuratzen dituzten eragileen artean ohikoagoa da Administrazio Publikoa finantzaketa-iturritzat hartzea. Are gehiago, 16. grafikoak erakusten duen irudiak adierazten du progresio linealak salto oso esanguratsua egiten duela berrikuntza sozialaren maila baxuen eta maila ertainen artean.

**16. grafikoa. Administrazio Publikoa finantzaketa-iturri gisa,  
RESINDEX indizeen intentsitate mailen arabera**

(Ardatz horizontalak BEHEKOA, ERTAINA ETA ALTUA kategoriekkin lotutako RESINDEX indizea erakusten du. Aldiz, ardatz bertikalak kategoría bakoitza osatzen duten eragileen arteko "administrazio publikoa finantzaketa-iturri gisa" faktorearen batez besteko balioa erakusten du)



Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

Administrazio Publikoaren hainbat alor finantzaketa lortzeko iturri potentzialtzat hartzen baditugu, 19. taulak erakusten du Eusko Jaurlaritzak finantzatzen dituela eskualdeko eragileak maiztasun handienez.

**19. taula. Administrazio publikoko finantzaketa-iturriak eragileen arabera**

(Koloreen araberako baldintzazko formatua)

	Udalak	Foru Aldundiak	Eusko Jaurlaritzak	Espainiako Gobernua	EB27
Enpresak	2	5	7	5	3
Irabazi-asmonik gabeko erakundeak	52	52	67	3	1
Unibertsitateak	6	21	39	31	9
Teknologia-zentroak	0	88	100	100	88
<b>ESKUALDEKOA</b>	<b>20</b>	<b>28</b>	<b>39</b>	<b>15</b>	<b>6</b>

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

Nabarmentzeko modukoa da teknologia-zentroek eta unibertsitateek jasotzen dutela Espainiako Gobernuaren finantzaketa maiztasun handienez, eta, neurri txikiagoan, baita Europar Batasunaren eskutik ere.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen kasuan, berriz, finantzaketa publikoko iturriak batez ere erkidegokoak, foru mailakoak eta tokikoak direla ikusi dugu.

## E.6 Administrazio publikoa eta eragileak: Ikuspegi integratua

Atal honetan Administrazio Publikoaren (dituen funtzio guztiei erreparatuta) eta eskualdeko eragileen arteko harremana erakutsi nahi dugu (20. taula).

Eragile guztien kasuan, eztabaida ezina da Administrazioaren zeregina gehiago hartzen dutela aintzat eta gehiago lotzen zaizkiola Administrazioari, batez ere, Administrazioa finantzaketa-iturri denean. Aztertutako beste bi funtzioetan (ideien iturri eta lankidetzarako bazkide) lotura txikiagoa da.

Horrez gain, ikusi dugu, eragile guztientzat, lankidetzako bazkide izatearen zeregina nabariagoa dela ideia-iturri izatearena baino, teknologia-zentroen kasuan izan ezik.

Amaitzeko, esan daiteke, Administrazio Publikoaren eta hemen aztertutako eragileen arteko harremanetara gerturatze hau gehiago gara daitekeela Administrazio Publikoari esleitutako funtzio kopurua handitu ahala.

20. taula. Administrazio publikoa emandako funtzioaren eta eragileen arabera

(Koloreen araberako baldintzazko formatua)

	Ideien iturri	Lankidetzako bazkide	Finantzaketa-iturri
Enpresak	5	5	10
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	16	31	85
Unibertsitateak	23	25	53
Teknologia-zentroak	50	38	100
<b>ESKUALDEKOA</b>	<b>15</b>	<b>20</b>	<b>50</b>

Iturria: RESINDEX 2012, SINNERGIAK – INNOBASQUE (2013) inkesta

## Taulen aurkibidea

<b>1. taula</b>	RESINDEX: dimentsioak, adierazleak eta interpretazioa	21
<b>2. taula</b>	RESINDEXen kalkulu modua	23
<b>3. taula</b>	RESINDEX eragileen arabera (Koloreen araberako baldintzazko formatua)	27
<b>4. taula</b>	RESINDEX eragileen arabera (Tonuen araberako mailaketa)	27
<b>5. taula</b>	Berrikuntzako gaitasun potentziala eragileen arabera (Koloreen araberako baldintzazko formatua)	28
<b>6. taula</b>	Berrikuntzako gaitasun potentziala eragileen arabera (Tonuen araberako mailaketa)	29
<b>7. taula</b>	Arlo sozialera zuzendutako orientazioa eragileen arabera (Koloreen araberako baldintzazko formatua)	30
<b>8. taula</b>	Arlo sozialera zuzendutako orientazioa eragileen arabera (Tonuen araberako mailaketa)	30
<b>9. taula</b>	Berrikuntza soziala eragileen arabera (Koloreen araberako baldintzazko formatua)	31
<b>10. taula</b>	Berrikuntza soziala eragileen arabera (Tonuen araberako mailaketa)	32
<b>11. taula</b>	RESINDEX indizea enpresetan	36
<b>12. taula</b>	RESINDEX indizea irabazi-asmorik gabeko erakundeetan	40
<b>13. taula</b>	RESINDEX indizea unibertsitateetan	44
<b>14. taula</b>	RESINDEX indizea teknologia-zentroetan	48
<b>15. taula</b>	Administrazio publikoa, eragileen araberako ideien iturri den heinean	57
<b>16. taula</b>	Administrazio publikoa, eragileen araberako ideien lankidetzarako bazkide den heinean	58
<b>17. taula</b>	Administrazio publikoko lankidetzazko bazkideak eragileen arabera (Koloreen araberako baldintzazko formatua)	59
<b>18. taula</b>	Administrazio publikoa, eragileen arabera finantzaketarako iturri den heinean	60
<b>19. taula</b>	Administrazio publikoko finantzaketa-iturriak eragileen arabera	61
<b>20. taula</b>	Administrazio publikoa emandako funtzioaren eta eragileen arabera	62

## Grafikoen aurkibidea

<b>1. grafikoa</b>	RESINDEX eredia: xurgatze eta berrikuntza sozialerako gaitasuna	20
<b>2. grafikoa</b>	Enpresetako berrikuntzako gaitasun potentzialaren indizea	34
<b>3. grafikoa</b>	Gauzatutako gaitasuna. Enpresetako arlo sozialera zuzendutako indizea	35
<b>4. grafikoa</b>	Gauzatutako gaitasuna. Enpresetako berrikuntza sozialaren indizea	35
<b>5. grafikoa</b>	Irabazi-asmorik gabeko erakundeetako berrikuntzarako gaitasun potentzialaren indizea	38
<b>6. grafikoa</b>	Gauzatutako gaitasuna. Arlo sozialera zuzendutako indizea irabazi-asmorik gabeko erakundeetan	39
<b>7. grafikoa</b>	Gauzatutako gaitasuna. Berrikuntza sozialaren indizea irabazi-asmorik gabeko erakundeetan	39
<b>8. grafikoa</b>	Unibertsitateetako berrikuntzako gaitasun potentzialaren indizea	42
<b>9. grafikoa</b>	Gauzatutako gaitasuna. Unibertsitateetako arlo sozialera zuzendutako indizea	43
<b>10. grafikoa</b>	Gauzatutako gaitasuna. Unibertsitateetako berrikuntza sozialaren indizea	43
<b>11. grafikoa</b>	Teknologia-zentroetako berrikuntzako gaitasun potentzialaren indizea	46
<b>12. grafikoa</b>	Gauzatutako gaitasuna. Teknologia-zentroetako arlo sozialera zuzendutako indizea	47
<b>13. grafikoa</b>	Gauzatutako gaitasuna. Berrikuntza sozialaren indizea teknologia-zentroetan	47
<b>14. grafikoa</b>	Administrazioa ideien iturri gisa berrikuntza sozialeko indizearen intentsitate mailen arabera (Ardatz horizontalak BEHEKOA, ERTAINA ETA ALTUA kategoriekin lotutako RESINDEX indizea erakusten du. Aldiz, ardatz bertikalak kategoria bakoitza osatzen duten eragileen arteko "administrazio publikoa ideien iturri gisa" faktorearen batez besteko balioa erakusten du)	59
<b>15. grafikoa</b>	Administrazio publikoa lankidetzako bazkide gisa berrikuntza sozialeko indizearen intentsitate mailen arabera (Ardatz horizontalak BEHEKOA, ERTAINA ETA ALTUA kategoriekin lotutako RESINDEX indizea erakusten du. Aldiz, ardatz bertikalak kategoria bakoitza osatzen duten eragileen arteko "administrazio publikoa lankidetzako bazkide gisa" faktorearen batez besteko balioa erakusten du)	59
<b>16. grafikoa</b>	Administrazio publikoa finantzaketa-iturri gisa berrikuntza sozialeko indizearen intentsitate mailen arabera. (Ardatz horizontalak BEHEKOA, ERTAINA ETA ALTUA kategoriekin lotutako RESINDEX indizea erakusten du. Aldiz, ardatz bertikalak kategoria bakoitza osatzen duten eragileen arteko "administrazio publikoa finantzaketa-iturri gisa" faktorearen batez besteko balioa erakusten du).	60

## Bibliografia

Cohen, W. M. eta Levinthal, D. (1990). Absorptive capacity: A new perspective on learning and innovation. *Administrative Science Quarterly*, 35 (1), 128-152 or..

European Commission. (2010). Europe 2020 Flagship Initiative. Innovation Union. : European Commission COM (2010) 546 final, 1-43 or..

European Commission. (2011). Empowering people, driving change Social Innovation in the European Union. Bureau of European Policy Advisers, Luxemburgo, 1-176 or..

European Commission. (2012). Strengthening social innovation in Europe. Journey to effective assessment and metrics. Belgika, 1-75 or..

Europar Batasuna. (2012). Financing Social Impact Funding social innovation in Europe – mapping the way forward. Eskuragarri: [http://ec.europa.eu/enterprise/newsroom/cf/\\_getdocument.cfm?doc\\_id=7048](http://ec.europa.eu/enterprise/newsroom/cf/_getdocument.cfm?doc_id=7048) ( 2-60 or.).

Hellström, T. (2004). Innovation as Social Action. *Organization*, 11 (5), 631-649 or..

Howaldt, J. eta Schwarz, M. (2010). Social Innovation: Concepts, research fields and international trends. Research Rapport. Sozialforschungsstelle Dortmund. ZWE der TU-Dortmund.

Kanter, R. M. (1999). From spare change to real change: The social sector as beta site for business innovation. *Harvard Business Review*, 77 (3), 123-132 or..

Mahroum, S. Huggins, R. Clayton, N. Pain, K. eta Taylor, P. (2008). Innovation by adoption. Measuring and mapping absorptive capacity in UK nations and regions. Londres: NESTA.

McElroy, M. W. (2002). Social innovation capital. *Journal of Intellectual Capital*, 3 (1), 30-39 or..

Murray, R. Caulier-Grice, J. eta Mulgan, G. (2010). The Open Book of Social Innovation. Londres: NESTA.

Oeij, P. Kraan, K. eta Vaas, F. (2010). Impact of Social Innovation on organisational performance and sickness absence. , XVII ISA World Congress of Sociology ( 1-52 or.). Goteborg, Suedia.

Phills, J. Deiglmeier, K. eta Dale, T. (2008). Rediscovering Social Innovation. *Stanford Social Innovation Review*, 6 (4), 34-43 or..

Pol, E. eta Ville, S. (2009). Social innovation: Buzz word or enduring term? *Journal of Socio-Economics*, 38 (6), 878-885 or..

Zahra, S. A. eta George, G. (2002). Absorptive capacity: a review, reconceptualization, and extension. *Academy of Management Review* 27 (2), 185-203 or.



